

puntuua ¹¹¹

LESBIANALESBI

GAYGAYGAYGAYG

TRANSTRANSTR

BISEXUALBISEX

INTERSEXUALIN

ETAABAR

ASKATASUNAREN

KOLOREAK

EKAINAREN 28A, LGTBI+

HARROTASUN EGUNA



PUNTUA 111
2017-06-23 EGUBAKOITZA
 AZALAREN EGILEA:
 AITOR LAGOMA



AURKIBIDEA

- 4 **Bat-batean** Ilaski Serrano
- 6 **Irudiz** Uraren ertzean
- 8 **Mundutik** Alemania: *Amerika first*, edozein preziotan
- 10 **Erreportajea** Harrotasunez, aldarrikatzen
- 20 **Elkarrizketa** Joseba Bergaretxe, Ekai Centerreko ikerlaria
- 24 **Osasuna** Iodo faltaren ondorioak
- 26 **Kirola** Ibilaldia: Bergarako mugarren ibilbidea (V)
- 28 **Adituen esanetan** Pixoihalen aldaketa
- 30 **Otorduan** Tartufo jatetxea: terraza berritua
- 32 **Moda** Bainujantziak
- 34 **Motorra** Babes-hesiak
- 36 **Gure artistak** Joana Manzidor arrasatearra
- 38 **Kultura** Aitor Etxebarria, *El_Txef_* A musikaria
- 40 **Liburu artean** *Jack y la muerte*
- 42 **Gure altxorrak** Eskoriatza eta Arrasate: San Benito Menni
- 45 **Gadgetmania**
- 46 **Handitzen, handitzen** *Plazan Bazan*
- 47 **Jaioberriak**

IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Eneko Barberena Mondragon *Godot, kondekuan itxarongo zaitugu*
- 16 **Hainbat aburu** Eduardo Zubiaurre *Euskaldunon zergak*
- 16 **Eztabaida** Janari prestatuak
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea** Anartz Agirre Madariaga *Jornet vs Iñurategi*
- 18 **Talaitatik** Joseba Iñaki Etxezarreta *Autonomia ala autogestioa?*
- 44 **Komunikazioa** Ander Zubizarreta *Alfabetatze digitala*

IRITZIA NIRE TXANDA



Eneko Barberena Mondragon

Godot, Kondekuan itxarongo zaitugu

Samuel Beckett-ek idatzitako obran lez, Vladimir eta Estragon oldea dirudigu azkenaldian Euskal Herrian. Hamarkada askotan irmoa zena desegiten ari dela dirudi ziztu bizian, harrizko herria hareazko herri ote den galdetzen dute batzuek, Bauman alde zaharrea paseatzen da Mondragoen, eta mundua sartua den eromenean bete-betea murgildu garena dirudi. Robotek lana eta bizitza aldatuko ote diguten honetan iritsiko da kirol jokoan klima zenbat gradu berotuko den posturatuko dugun eguna, Arrasaten pinuak, eukaliptoak, gaztainondoak ala olibondoak egongo diren eta zirimiria ez ote den izango islandiarren paradoxa. *Oh Scheiße, Scheiße, Scheiße.*

Interneten ondoren politika ez ei da gauza bera izango, ezta musika ere. Ion Andoni del Amok *Party eta borroka* obran garatzen duenari so, Tolosaldeko gazteek reggae eta sound system mugimendu gazteari kontatzen dizkidatenak jarraituz, badirudi agortu dela 80ko hamarkada luzea. Amaitu dira –ondratuki, hobe da *amaitzeaz dira* esatea– horren ondo ezagutzen dugunaren omenaldi, erreportaje eta revival konstanteak. Ze injustuak izan garen, bidenabar, euskararentzat horren garrantzitsua izan den 90eko hamarkadaz, ze garrantzitsuak Esan Ozenki edota Gor taldeen katalogoak.

Eta Godoten esperoan lez, zain gaude ea ze entzungo den aurren gure santoraleko jaietan. Ea badatorren hori ze jitetakoa izango den, ea nola gauzatuko den hori gure herrietako jaien egitarauetan... Bergara jada hasia bada bideren bat urratzen honetan, baina guk Kondekuan zain jarraitzen dugu, Godot. ■■■

ZE INJUSTUAK IZAN GAREN EUSKARARENTZAT HORREN GARRANTZITSUA IZAN DEN 90EKO HAMARKADAZ

puntua

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe

Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga
Kluba eta banaketa Marta Leturia
Maketaziora Iñaki Iturbe, Aitor Lagoma.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziertra Martin, Imanol Elortza
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943-25 05 05
harpidetza@goiena.eus
Lege Cordaluz: SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ilaski Serrano

BAT-BATEAN

Testua: Txomin Madina / Argazkia: EITB

Irratian lehenengo eta telebistan geroago, EITBko kazetari ezagunenetakoa dugu bermeotarra. Bera, eta bere barrea.

Ikasturtea amaitzen ari da. Zein nota jarriko zenioke Ahoz aho-ri? Ez da erraza... Erronka handia izan dugu, aldaketak ere nahiko azkar joan ziren eta: egun batean *Azpimarra* egin behar genuen eta hurrengoan, *Ahoz aho*. Baina jakin izan dugu saioaren lekua topatzen. Ni neu pertsonalki oso gustura, oso ondo geratu naiz; zalantza asko izan ditut, baina lan asko egin dut, eta zuzenekoaz gozatu dut.

Saioan, batez ere, elkarrizketatzaile moduan ikusi zaitugu. Zeintzuk dira elkarrizketa errazak, eta zeintzuk zailak? Ni, interesgarriak egiten saiatzen naiz. Gonbidatu batzuk eta euren ibilbidea aspalditik ezagutu ditzakezu, eta horiek elkarrizketatzea errazagoa da, zertan dabilzan dakizulako; ezezagunak zailagoak dira zentzu horretan, gehiago dokumentatu behar zarelako. Norberaren arabera da: liburu bati buruzko elkarrizketa plazera da, nahiz eta liburua irakurri behar; beste batentzat, beldurgarria izan daiteke. Kazetariak ezagutu egin behar du gonbidatuaren lana, elkarrizketaren motiboa; horrek denbora luzeagoa edo laburragoa eskatu dezake.

Azkenaldian, formatu formalagoetan zabilta. Txip aldaketa handia eskatu zizun bere garaian? Nire ibilbidea beste erregistro baten, ondo pasatzearen arloan izan da, bai, baina orain ez dut beste pertsona bat asmatu; ni neu naiz. Maddalen Iriartek *Azpimarra*-rako deitu zidanean, zalantzak izan nituen, ikusleek zer pentsatuko zuten errezeloa. Animatu ninduen, eta lehenengo egunetik oso gustura nago: eboluzio bat izan dut, eta lanean horretarako aukera izatea gozamen da.

Ze geratzen zaizu egiteko EITBn? Une bakoitzean egin izan dudanarekin oso gustura egon naiz, eta hori polita da oso. Lehiaketak aurkezten hastean, adibidez, horixe iruditzen zitzaidan formatu ideala. Oraingo lanarekin ere gustura nago: gauzez oso informatuta egotea eskatzen dizu, eta horrek lan handia du lanorduetatik kanpo ere, baina asko eskertzen dut, eroso nago. Zuzeneko den edozer egingo nuke.

Zenbat lankide bihurtu zaizkizu lagun-min? Asko, eta eskerrak! Irratian ibili nintzen sasoiko hiruzpalau lagun ditut minak, bat oso mina; eta ezin ahaztu *Mihiluze*-n egindakoak. Nire lagun handiena ere, Unai [Iparragirre], telebistan lanean ezagutu nuen. Eta aurretik harremana izan arren, iaz batera lan eginda Iban [Garate] ezinbesteko bihurtu da nire bizitzan.

Komunikatzaile ez bazina... Idazteko edo abesteko talentua izango banu, oso zorionsua izango nintzateke. Egia esan, ez dut horretan askorik pentsatu: sortzea gustatzen zait, idaztea, historia... Liburu artean ibiliko nintzateke gustura.

Kalera irtetea, zertan nabari duzu egunero milaka etxetan sartzen zarela? Zorionez, nire ibilbidearen hasieratik, oso keinu atseginetan. Jendeak oso ondo tratatzen nau, ez dut inoiz esperientzia txarrik izan. Euren etxekoa banintz bezala hurbiltzen zaizkit: aurrekoan, esaterako, kontzertu baten etorri zitzaidan gizon bat eguneko elkarrizketaz berba egitera.

Goizean goiz jaikitzea ala gauean berandu oheratzea zara? Goizean goiz ez, hori pozoia da, sufrimendua! Nik nahiago gauean gau!

Zenbateko meritua duzu euskalkien normalizazioan? Ni saiatzen naiz gauza ezberdintzen: gauza formalak, aurkezpenak-eta, batueraz egiten; baina baita ere urduri dagoena, edo euskara batuan ohiturarik ez duena, lasaiarazteko, keinu moduan, bere hizkerara gerturatzen ere. Horretan hasi nintzen duela urte asko, baina orduan jendea ez zegoen ohituta, eta barreak ere entzun ditut neure euskararen inguruan. Sentitu dut bata zuzena zela eta bestea ez. Estandarizazioa ezinbestekoa den arren, batuera zabal baten sinisten dut. Baina uste dut urte asko pasa direla, asko euskal alfabetatuak garela, belarriak ohitu direla, eta horrek aukera ematen du zabaltzeko; ahozko saioetan, edo zuzenekoetan, gutxieneko malgutasun batekin aritzen.

“Isilik egotea eta bakarrik egotea gustatzen zait”, entzun genizun behin. Eta harrituko zen norbait zuri hori entzunda. Horrelako momentuak behar ditut, bai: isilik egon, neure burua entzun, asko irakurri, bakarrik bidaiatu... Bakardadea zoragarria da norberak bilatutakoa bada, eta, zorionez, nire ingurukoek badakite behar dudala, errespetatzen dute. ■■■



Uraren ertzean

IRUDIZ

Argazkia: Aladji Sarr

Testua: Maite Txintxurreta

Ile de Dionewarren (Senegal) ateratako argazkia da ondokoa, eta Aladji Sarren sinadura darama. Bergaran bizi den arren, senegaldarra da jaiotzez, eta bere herrialdeko irudi eder hau ekarri nahi izan dugu orri hauetara. Saloum eta Sine ibaien deltan dagoen irla hartan arrantza da ogibiderik garrantzitsuena; izan ere, abilak dira horretan. Irudian ikusten denez, eguneko jarduna bukatu berritan, ur gainean islatzen diren iluntzeko azken eguzki izpien argitan, arrantzaleak txalupa uraren ertzean laga eta sarea erretiratzen du. ■■■



'Amerika first', edozein preziotan

MUNDUTIK ALEMANIA



Xabier Alcelay

Alemanian bizi den
oñatiarra

Argazkiak: univision.
com eta publico.es

Europako politikariak amore ematen hasi dira presidente amerikarrarekin harreman iraunkorra ezartzeko ahaleginean. 195 herrialdek sinatutako Parisko Klima Akordiotik irtetea erabakita, Trumpek kontratu bat amaitu baino zerbait gehiago egin du. Izan ere, kontraesanean erortzen ari da. AEBetan azken 70 urteetako kanpo politikak konpromisoak bilatzearen filosofiari jarraitu izan dio, irabazi komun bat bilatzearen helburuarekin. Erabaki honen bitartez, Trumpek kapitulu berri bati ekin dio kolpe batez.

Litekeena da Trumpek Parisko Klima Akordioaren funtsezko funtzioa zehazki ez ezagutzea. Edozein kasutan, AEBen erabakiak ez luke zertan errealitatean ondorio dramatikorik sortu. AEBen ikatz produkzioa ez da pauso honen bitartez errentagarriago bihurtuko. Kentucky, Oklahoma eta Wyoming estatuetako petrolio eta ikatz produkzioa ez da erabaki honen bitartez indartuko.

Gainontzeko akordio-partaideek beraien konpromisoa sendotu dute klima babestearen alde. Amerikarren ikuspuntutik, erabakia nahiko ulergaitza da, munduari urteetan zehar

emandako promes bat hausten baita. Enpresa garrantzitsu eta estatu batzuek dagoeneko erakutsi dute beraien desadostasuna. Munduko petrolio ekoizle handiena den enpresa amerikarraren buruak –Darren Woods, Exxon Mobil–, duela egun batzuk, Parisko Akordioa mantentzeko gomendatzen zion, publikoki, AEBetako presidenteari. Akordioa mantentzeak AEBei negoziazio mahaian toki bat ziurtatuko lieke etorkizunean. Horretaz gain, energia iturri eta etengabe garatzen ari diren teknologia guztiak modu justuan tratatzeko gomendatzen zion. Woodsek Shell, Chevron eta BPko bere kideen babesa jaso zuen, aldaketa klimatikoa benetan gertatzen ari den zerbait dela eta enpresa hauek soluzioaren parte izan behar dutela baieztatuz.

Akordioari uko eginez, amerikarrek beren burua kaltetzen dute teknologia eta energia iturri zaharkituei pisua emanez. Ingurumenaren eta klimaren babeste zorrotzagoak berrikuntza teknologikoa sustatzen du, garapen ekonomikoaren funtsezko oinarri bat. Hori da, izan ere, Trumpen kontraesana kasu honetan. Bere erabakiaren zerumuga epe motzekoa da, bere neurriekin etekina maximizatzeko helburuarekin. Baina AEBak ez dira enpresa bat eta klima aldaketaren gorabeherak ez dira



–zorionez– burtsarean bezain dinamikoak. Trumpek ulertu nahi ez badu ere, Parisko Akordioa epe luzeko inbertsioa da.

AEBen pauso honek zerbait garbi utzi badu hau da: Europako politikari eta organismoen erronka da estrategiak bilatzea datozen lau urteetarako, eta, batez ere, Trumpen politikarekin gainontzeko mundua bezain desados dauden haiekin harreman bat mantentzeko. AEBak, beraien orain arteko *softpower* internazionala.

Presidente amerikarraren politika ulertzeko erak nahiko berezia dirudi: bere ikuspuntutik, biren arteko akordio bat sinatzen denean, alderdi batek irabazle –eta, inplizituki, besteak galtzaile– atera behar du. *America first*, dena delako prezioan. ■

**TRUMPEN IKUSPUNTUTIK,
BIREN ARTEKO AKORDIO BAT
SINATZEAN, ALDERDI BATEK
IRABAZLE ATERA BEHAR DU**



Aldaketa klimatikoaren kontrako munduko lehen akordioa sinatu zen 2015ean Parisen (behean).

AEBek Parisko Klima Akordiotik ateratzea erabaki dute, eta aldaketa klimatikoari bizkarra eman diote.

Harrotasunez, aldarrikatzen

Ekainaren 28a, Harrotasun Eguna, Bergaran ospatuko dute aurten bailara mailan. LGTBI+ kolektiboak dituen aldarrikapen guztiak “ozen zabaltzeko” eguna izango da, eta aurten, gainera, transexualitatearen gainean jarriko dute fokua. Testua: **Josu Bilbao**. Argazkiak: **Josu Bilbao eta Maite Txintxurreta**.

Harrotasun Eguna edo Sexu Askatasun Eguna LGTBI+ mugimenduak dituen aldarrikapen ezberdinak batzeko, ozen esateko eta askatasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko eguna izango da, beste behin. Aurten, Debagoiengan, Bergaran egingo dute manifestazioa –19:30ean hasiko da Herriko Plazan– ekainaren 28an, mundu mailan ospatzen den Harrotasun Egunean, hain zuzen ere. Debagoieneko Koordinakunde TransMarikaBolloFeministak beste urte batez aldarrikapenekin eta bat egiteko dei egin du. Koordinakundean, Kitzikan sexu askapenerako gazte antolakundea, Emakumeen Mundu Martxa, Arrasateko Pottogorriak, Oñatiko Sare Feminista (Pototak eta Andraitz), Bergarako Martxantera eta Aretxabaletako Emakumeen Mundu Martxa daude. “Aurreko urtean sortu zen Koordinakunde TransMarikaBolloFeminista, urtero ekainaren 28a

ospatzeko helburuarekin. Urtetik urtera herritik herrira pasatzea da helburua, eta aurten Bergaran egingo dugu. Manifestazioa 19:30ean hasiko dugu Herriko Plazan eta Irala kalean bukatuko dugu. Bertan, aldarrikapenen irakurketa egiteaz gain, aurten gaia transexualitatean zentratu dugu, transfobiaren inguruan nahiko hitz egin delako azkenaldian. Hori dela eta, lelo nagusia *Nire identitatea ez dago hanka tartean*. *Transfobiarik ez* izango da. Aldarria hortik joango da, baina beste aldarrikapen batzuk ez ditugu ahaztuko. Gero, manifestazioaren ostean, DJ batzuk egongo dira Pol-pol tabernan, eta giro pixka bat sortzea da helburua”, azaldu du Debagoieneko Kitzikaneko kide Xabier Vallinak.

“Aurreko urtean Arrasaten landu genuen sexilioaren gaia, eta manifestazioa ere egin genuen. Arrakastua izan zen, ez genuen espero, gazte pila bat batu ziren. Emandako irudia oso potentea izan zen, eta ea aurten marka hori gainditzen dugun. Horregatik, intentzioa herrietatik jendea Bergarara mobilizatzea da. Oso garrantzitsua izan da feministekin lortu dugun



Debagoieneko Koordinadora TransMarikaBolloFeministak ekainaren 28ko mobilizazioetan parte hartzea deitu ditu herritarak.

indarra. Borroka feminista eta sexu askapen mugimendua oso gertu daude, eta aliantza honi esker lortu dugu aurrera ateratzea, Kitzikanek bakarrik, agian, ezin izango lukeelako indar nahikoa bildu”, adierazi du Xabier Vallina arrasatearrak.

Ekainaren 28ko aldarrikapenetan eta jai giroan parte hartzeko deialdia herritar guztiendako dela azpimarratu nahi du Koordinakunde TransMarikaBolloFeministak, Vallinak azaldu duen moduan: “Manifestazioa elkartasun adierazpen bat da; beraz, denondako irekia da. Konplizitateak sortzea oso ona da, gure ustez, nahiz eta egia den aldarria urteko egun guztietara eraman beharko litzakeela, egunerokoan sortzen direlako zailtasunak. Bakoitzak bere buruari deseraiki behar dizkion gauza txikiak dira, eta ekainaren 28ko manifestazioan parte hartzea lehen pauso bat da”.

“Gaia Debagoiengan ere mahai gainean jartzea da helburua. Bailara mailan Kitzikan taldea sortu zenean, sexilioaren inguruko lanketa baten bueltan sortu zen. Zapalkuntza sexu-identitario baten ikuspuntutik

kanpora joan ginenen artean, bueltatu ginenean, konturatu ginen Arrasaten eta gure inguruetan ere behar hauetaz borroka bat eta bizi baldintza duin batzuk sortzea beharrezkoa zela. Izan ere, gaur egun, ez dugu ikusten hauek daudenik. Horregatik, ekainaren 28a hirigune handietan oso zentratuta egon arren, Debagoiengan geratzeko ideia hori ere aldarrikatzea da asmoa”.

Ortzadarra margotzera

Igande honetan, ekainak 25, gainera, Agorrosin kiroldegiaren parean dagoen zebra-bide bat harrotasun banderaren koloreekin margotzeko dei egin du Bergarako lagun talde batek: “Harrotasun Egunaren inguruan gure aldarrikapenak adierazteko Bergarako lagun batzuk elkartu gara aurten. Asmoa zebra-bide bat ortzadarraren koloreekin margotzea da. Horrela, herritarrei bat egiteko dei egiten diegu, bai domekan, 19:00etan, egingo den margotzera, baita ekainaren 28an Bergaran egingo den manifestaziora”. ■■■



Ixotz Louyest.

“Homosexualitateak hainbat gauza lortu ditu; gu, oraindik, atzerago gaude”

IXOTZ LOUYEST UNAMUNO

“Ni transexuala eta bisexuala naiz”. Argi eta garbi adierazten du Ixotz Louyest Unamuno bergararrak. Aurten, Harrotasun Egunean, transexualitatea jorratuko dute, bereziki, Debagoienean, LGTBI+ kolektiboaren barnean “letra guztiek” dute-eta garrantzia. Hori dela eta, bergararrak dio hainbat aldarrikapen plazaratzea “ezinbestekoa” dela: “Borroka 365 egunetakoa da guretako. Transexualitatea ez da inongo

trastornoa, eta, horregatik, sigla guztiez hitz egin behar da. Homosexualitateak hainbat gauza lortu ditu, eta gu, adibidez, oraindik, atzerago gaude. Beraz, borroka batera egitea da kontua. Eguneroko bizitzan nire alea jartzen saiatzen naiz, zuzenean eragiten nauen kontua delako, eta ez litzaidake gustatuko nire atzetik datozenek nik pasatu behar izan dudana pasatzea. Nik 12 urte inguru nituenean ez zegoen hainbesteko

informaziorik, eta zaila izan da. Jendeak ez zuen ulertzen edo errespetatzen, eta mota ezberdinetako erasoak jasan behar izan ditut. Errepresio hori berriz itzultzea ez dut nahi. Horregatik, ez da bakarrik homosexualak borrokatu behar duten kontu bat. Tristeena borrokatzen ibili beharra da, baina lesbianak, bisexualak, transexualak... ere bagaude eta baditugu gure aldarrikapenak”.

Berak bizi izan behar duena bere ondoren etorriko direnek ez igarotzea nahiko luke Ixotz Louyestek: “Ni 25 urterekin hasi nintzen psikologo klinikoarekin. Ordura arte banekien, baina, nolabait, isilpean ibili behar izan dut 25 urtez. 7 urterekin, gutxi gorabehera, banekien, baina ez nuen hitza oraindik, ez nekien nola definitu nire egoera. Ni alua nuen mutil bat nintzen, eta ez zen erraza izan etxekoei hori azaltzea. Familiari kostatu egin zitzaion dena ondo enkajatzeta, beldurra zutelako gizarteari begira. Hala ere, gero, lagundu egin didate. Euren informazio falta izan zelako ere bai. Gaur egun, nire emaztea emakume transexuala da, eta gure borroka egunerokotasunean ere eramaten dugu”.

Identitate sexualei dagokienez, transexuala ez dela identitate ezberdin bat defendatzen du bergararrak: “Askatasun sexuala defendatzen dugu; bai, noski. Transexual asko homosexualak dira edota bisexualak ere bai, baina, identitate sexualekiko askatasunaren inguruan berba egitean, gu ez gara beste identitate sexual bat. Ni gizona naiz, ez naiz beste identitate

“EZ LITZAIDAKE GUSTATUKO NIRE ATZETIK DATOZENEK NIK PASATU BEHAR IZAN DUDANA PASATZEA”

sexual bat transexuala naizelako. Eta transexuala den emakumea, emakumea da, beste edozein emakumeren moduan. Hori ere aldarrikatu nahi dugu. Identitate transetatik kanpo sentitzen gara. Gure identitate sexuala beste edozein pertsona zisexual edo zisgeneroren berdina da. Beste kontu bat da trabestiak edo drag-ak, edota sexu bateko edo bestekoak sentitzen ez direnak. Ez dugu nahi gu sailkatzea, gu aparteko identitate sexual bat garela esaten dutenek egiten duten moduan”.

Hezteia eta entzutea, gakoak “Haur eta adingabeei entzutea, arlo guztietan. Helduek eurei entzutea eta errespetatzea. Eta inoiz ume horrek adierazten badu, adibidez, ez dela neska, baizik eta mutila, hori onartzea, elkartasuna adieraztea eta haien eskubideak bermatzea. Hori oso garrantzitsua da eta Chrysallis elkarte horretan dabil buru-belarri. Gurasoen erabakien edo iritzien gainetik, haurren ongizatea bermatu behar dugu. Umeari lagundu eta entzun behar zaio, eta haurrak edo adingabeak prozesua hasi nahiko balu, errekurtsioak eman beharko litzaizkioke. Noski, zakila duten neskek daude, eta alua duten mutilak. Ez da ohikoena, baina biologia liburuetan ere azaltzen dira. Gure eskolako liburuetan, ordea, ez ziguten eta ez digute hori erakusten”, azaldu du.

“Gizartea hezteia, hori da aldarrikapen nagusietako bat. Transexualitatearen gaia gero eta gehiago ikusten da, komunikabideetan ere bai, nahiz eta, askotan, oraindik, haiek ere

“ZAKILA DUTEN NESKAK ETA ALUA DUTEN MUTILAK DAUDE, BAINA ESKOLAKO LIBURUETAN EZ DUTE HORI ERAKUSTEN”

gehiago landu beharko luketen gaia, ez dutelako ondo jorratzen. Hezkuntzan, haurtzarotik hasita sexualitate eskolak ematen direnean, ez litzateke mugatu beharko emakume eta gizon kontzeptu tradizionalak. Denetik dago, eta benetako errealitate guztiak barneratu beharko lirakeke sexualitate hizkuntza ematen denean”, dio Ixotz Louyestek.

Gainera, sexuz aldatzeko tratamenduak osasun sistemak jaso beharko lituzkeela azpimarratu du bergararrak: “Osasun tratamendu guztiak, mota orotarikoak, murrizketarik gabe aldarrikatzen ditugu. EAEn eta Nafarroan lege integralak onartu zituzten, eta gure ebakuntzak Osakidetzan eta Osasunbiden barneratuta egongo zirela bermatu zuten. Hala ere, oraindik ez ditugu guztiz bermatuta ikusi, eta niri, adibidez, azken ebakuntza atzera bota didate. Gurea ere behar bat da; ez da kapritxo bat. Egiten duenak behar duelako da. Gainera, ez da inoren gustukoa ebakuntza bat egitea, anestesia totalarekin, eta auskalo handik nola irteten zaren”.

Bisexualitatea, ikusezin “Ni transexuala eta bisexuala naiz, eta ohitura handia dago bisexualitatea lizunkeria kontuekin lotzeko. Sexuan

besterik pentsatzen duten pertsonak direla. Mundu guztia bisexuala dela esaten dutenak ere badaude, eta hori ere ez da. Pertsona batek ez du erabakitzen zer izan, orientazio sexual kontuetan. Zuk ez duzu erabakitzen heterosexuala, homosexuala edo bisexuala izatea. Zara edo ez zara. Askotan, berandu konturatzen zara, ez duzulako onartu nahi gizartean errepresalien beldur zarelako, baina bisexuala edo homosexuala izatea bezain naturala da. Eta benetan oso ikusezina izan da, gainera, bisexualitatea heterosexualearekin edo homosexualitatearekin alderatuta”, dio Louyestek.

Transfobiatik ihesi Gurean ere beste herrialde batzuetatik transfobiatik ihesi datozen pertsona ugari daudela azaldu du bergararrak: “Naziotasunik gabeko pertsonen eskubideak bermatzea, transfobiatik edota homofobiatik ihesi datozen errefuxiatuei asilo eskubidea bermatzea eta izena zein sexua zuzentzeko eskubidea ez ukatzea. Gero eta gehiago ikusten da, gainera, haien herrietan mehatxuak eta hilketa saiakerak izan dituztelako. Toki dezente daude nazioartean oraindik, eta hemen babesik gabe daude”.



Trans harrotasunaren bandera.



Mireia Gallastegi eta Estitxu Lobato euren alabarekin.



Manex Agirre.

“Guretako naturala dena denondako izan beharko litzateke”

MIREIA GALLASTEGI ETA ESTITXU LOBATO

Mireia Gallastegi eta Estitxu Lobato bergararrendako, Harrotasun Eguna “aldarrikapenerako eguna” da. “Gure kolektiboa osatzen duen jendearendako beldur hori kentzea aldarrikatzeko eguna da. Gizartean dago arazoa. Norberak ez du arazoa joera bat edo beste edukitzeagatik. Orduan, gizarteak oraindik erasotzen bagaitu edo marjintzen bagaitu, beldur hori kendu behar dugu. Pertsona normalak gara, eta gure maitatzeko modua hau da. Maitasunak ez du modurik ezta kolore unibertsalik. Modu asko daude. Horregatik aldarrikatu nahi dugu jendea animatzea libre izatera bere maitasuna adierazteko”, adierazi du Gallastegik.

Harrotasun Egunean “denei” parte hartzeko dei egin die bergararrek. “Askatasun indibidualen gainean ari gara. Ze ezberdintasun dago bataren eta bestearen artean? Norekin oheratzen garen, edo nor maitatzen duzun? Azkenean, denok gara pertsonak eta ortzadarraren banderaren azpian denok gaude. Heterosexualak ere bai, nahiz eta Harrotasun Egunaren eta LGTBIQ kolektiboaren sinbolo izan”, dio Mireia Gallastegik.

“GUZTIAK GARA PERTSONAK; ORTZADARRAREN BANDERA AZPIAN DENOK GAUDE; HETEROSEXUALAK ERE BAI”

Ospatzeko gogo handiagoa “Aurten, bion artean umea eduki dugula eta bi ama garela esatean entzun behar ditugun komentarioak ikusita, ospatzeko gogo handiagoa dut. Familia bat gara eta hori aldarrikatu nahi dugu. Jendeak uste du egoera jada normalizatuta dagoela, baina ez da egia. Aurrera begira alaba zerekin topatuko den ikusita, gehiago aldarrikatzeko beharra dagoela uste dut”, dio Estitxu Lobatok.

“Elkarrekin hasi ginenean oso txarto pasatu genuen, jendeak begiratu eta hitz egiten zuelako. Bi neska, adinean ere aldea... Baina guretako naturala dena denondako izan beharko litzateke, azkenean”, azpimarratu du Lobatok.

“Berba egiten da, baina ikusezintasun handia dago oraindik”

MANEX AGIRRE

Kitzikaneko, sexu askapenerako gazte antolakundeko, kide da Manex Agirre arrasatearra (28 urte). Iaz Harrotasun Egunak Arrasaten izandako arrakastak aurten ere aldarrikapenekin aurrera jarraitzeko animoak eman dizkiela azaldu du: “Duela hiru edo lau urte hasi ginen ekainaren 28an eskualde edo herri mailan aldarrikapena egin guran, hirietatik ateratzeko eta ‘gu ere hemen gaude’ esateko. Ez gara asko, eta eskualdeko beste eragileei deialdia egitea pentsatu genuen, denon artean egiteko. Iaz sexilioaren kontzeptua izan zen gaia; hirietara ihes egiten duen jendea, hain zuzen, herrietan ezin delako aske bizi edo azaldu, eta, egia esan, arrakastatsua izan zen. Jende

pila bat batu zen, eta, guretako, kristorena izan zen. Herrietan ere aldarrikatzea eta hemen gaudela esatea da helburua. Gaiaz berba egiten da, baina ikusezintasun handia dago oraindik”.

Jaiegun hutsa baino gehiago “Harrotasun Eguna, niretako, harrotasuna azaltzeko eguna da, nahiz eta kontzeptua nahiko ahulduta egon. Askotan, ematen den irudia jaiegun batena da. Jai bere bada, baina, askotan, puntu

“GAUZAK NORMAL DAUDELA EMATEN DU, BAINA GERO, JARRERA HOMOFBOAK ETA TRANSFOBOAK OHIKOAK DIRA”

tribolo batetik. Ematen du gauzak normal daudela eta oso toleranteak garela eta dena oso polita dela, baina gero, jarrera homofoboak edo transfoboak oso ohikoak dira. Jendeak diskurtsoa ondo daki, baina oraindik erreparoa eta erresistentziak badaude. Horregatik, gu hemen gaudela aldarrikatzeko eguna da. Eta hau ez da hirietako gauza eskusiboa. Jende asko gaude hemen ere, eta herrian gura dugu bizi”, azpimarratu du arrasatearrak.

“Askotan, kontzientzia pizteko eguna ere bada. Kitzikan duela bi urte sortu zen, eta Arrasaten, behintzat, jende gaztearen artean txip aldaketa bat eman dugula pentsatu nahiko nuke”, dio Manex Agirrek.

HAINBAT ABURU



Eduardo
Zubiaurre

Euskaldunon zergak

Duela gutxi, Jabier Larrañagari, Gipuzkoako Ogasuneko diputatuari, entzun nion egun gure artean dagoen zergen inguruko eztabaidaren arrisku handiena dela gure ekonomiaren lehiakortasunarentzat eta ongizatearen jasangarritasunarentzat epe ertainean kaltegarriak izan zitezkeen neurriak hartzea. Bere iritzian, gure zerga sistema Europako beste herrietakoen antzekoa omen da, bai tipoetan, baita progresibitatean ere, eta, ondorioz, lortzen dugun diru bilketa gure ekonomia jardunaren araberakoa da.

Aldi berean, Adolfo Txiki Muñozen ohiko salaketak agertu ziren komunikabideetan: gure presio fiskala 6.000 milioi handitu beharra, iruzur fiskala 3.200 milioikoa izatea, Elkartearen Gaineko Zergaren bilketa 600 milioi jaitsi izana, eta abar.

Gai honen inguruko eztabaidetan ohikoa da eskandinaviarrekin alderatzea; bereziki, haiek dituzten zergak eta ordainetan jasotzen dituzten zerbitzuak azpimarratzea. Baina horren arrunta ez dena Eskandinaviako eraginkortasun ekonomikoa aipatzea da; izan ere, hango batez besteko *per capita*

errenta gurea baino %60 handiagoa da. Nire ustez, hortxe dago haien ongizatearen gakoa, baita gure gizartearen erronka. Ezinezkoa baita eskandinaviarrak baino askoz gutxiago sortuz haien adinako bizi-maila gozatu ahal izatea. Gure ongizatea eskandinaviarren mailara igotzeko erronka nagusiak aspalditik ezagutzen ditugu: lehiakortasuna, heziketa, ikerkuntza, ekintzailtza, nazioarteratzea, eta abar. Zalantza izpirik ere ez daukat erronka horiek gaintzeko askoz egokiagoak direla Jabierren asmoak Txiki-ren umekeriak baino. ■■■

XIXILI

Helena Azkarragaurizar



ERREMATEA



Anartz
Agirre Madariaga

Jornet vs Iñurrategi

Kilian Jornet eta Alberto Iñurrategi. Bata mediatikoa oso, bestea isilean aritzea nahiago duena. Azkartasuna du katalanak bereizgarri, poliki baina pauso sendoarekin bide berriak urratzea nahiago du euskaldunak. Biek zapaldu dute Everesteko gailurra oxigenorik gabe. Kilianek, oraintsu, astebeteko epean birritan. Aurtengo irailean beteko dira 25 urte, berriz, Albertok Felix anaiarekin batera munduko sabaia zapaldu zuenetik.

Nire nahia ez da bata bestearen aurka jartzea. Nor den hobe erabakitzea. Bakoitzak mendia ulertu eta egiteko moduan dagoen aldea azpimarratzea baizik. Kilianek Everestean egindakoa kirol erronka bat da. Izugarria, oso gutxiren eskura dagoena, baina kirol erronka hutsa. Albertok Juan Vallejo eta Mikel Zabalza sokalagun dituela Gasherbrum I eta IIa lotzen saiatzea, berriz, alpinismoa da; hizki larriz, gainera. Eta hau ez diot nik, Iñurrategik berak azaldu zuen Pakistanera abiatu aurretik emandako prentsaurrekoan. Jornet eta Iñurrategi, bi kirolari handi, baina bakoitzari berea! ■■■

EZTABAIDA GERO ETA JANARI PRESTATU GEHIAGO

Presak eta ohitura sozial berriek janari prestatuen kontsumoa %35 handitu dute hamar urtean Euskadin. Horrek ekarri du herritarren hozkailuetan halako produktu gehiago egotea.



LAURA ALUTIZ
NUTRIZIONISTA

“Janari prestatuek koipe, gatz eta azukre kantitate oso altuak izaten dituzte. Egutero edo sarritan hartuta, gorputzak zailtasunak izaten ditu metabolizatzeke eta kanporatzeko; beraz, organo, ehun eta fluidoetan pilatuta geratzen dira. Ondorioa da organo edo hainbat sistema huts egiten hasten direla, eta gaixotasuna sortzen da. Gomendioa da janari naturalak hartzea eta presaka ibiltzen direnek egun gehiagorako janaria prestatzea eta izozkailuan gordetzea”.



INA ESNAL
SUKALDARIA

“Hala da. Jendeari gaur egun ez zaio gustatzen sukaldean ibiltzea. Gure adina daukagunok oraindik jarraitzen dugu etxeko platerak prestatzen eta nik, behintzat, beti gertatzen dut eguneko. Jatetxean etxeko platerak izaten ditugu, eta bezeroek asko estimatzen dituzte. Izan ere, gaur egun, gazteek, lana delako, familia delako... ia ez daukate denborarik sukaldean ibiltzeko. Baina osasungarriagoa da guztiondako produktu freskoak kontsumitzen jarraitzea”.



ROSI RETOLAZA
EGUREN ARANDEGIA

“Datuek diote 2006a ezkeror arrain freskoaren kontsumoa %2,3 jaitsi dela eta azken bost urteetan beherakada handiagoa izan duela. Hala ere, nik ez dut halako jaitsiera nabarmenik igarri. Agian, hiri handietan gertatuko da, baina ez herri txikiago hauetan. Arrain freskoa saltzen jarraitzen dugu. Gainera, asteburuetan jendeak prestaketa luzeagoa eta konplexuagoa daukaten arrainak eramaten ditu, denbora luzeagoa daukalako prestatzeko”.



JOKIN MUJIKA
HERRITARRA

“Erritmo azkarreko gizarte eroso batean bizi gara eta nagusiagoak dira sukaldean gehien ibiltzen direnak. Ni bezalako 23 urte inguruko gazteok prestatutako janari gehiago kontsumitzen dugu. Bakarrik nagoenean, prestatutako zerbait jaten dut, normalean. Alde batetik, alferkeria izaten dut sukaldean hasteko, eta bestetik, ez dut denborarik hartzen. Supermerkatuetan ere halako produktu geroz eta gehiago daude, gainera, gure eskura”.



Joseba Iñaki Etxezarreta
Arizmendi Ikastolako zuzendaria

Autonomia ala autogestioa?

Orain dela aste gutxi *HIKHASI* hezkuntza-aldizkari euskaldunak argitaraturiko elkarrizketa batean irakurri ahal dugunez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko ikuskari Gonzalo Larruzeak hezkuntzari buruzko adierazpen gordinak bezain interesgarriak plazaratu ditu (<https://labur.eus/Dhy1E>). Hezkuntza-politikan interesa duen orori zinez gomendatzeko modukoak.

Eskarmentu handikoa dugu Gonzalo Larruzea, Hezkuntza-administrazioa eta Eusko Jaurlaritzaren jabegoko ikastetxeen sarean, alegia, 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak arautzen duen horretan. Horren lekuko dira bere ibilbide profesionala eta sindikala, eta egin dituen ikerketa eta azterketak. Azkena *La dialéctica público-privado en la educación vasca* liburuan argitaratu du.

Egungo hezkuntzari so egitean, hura geldialdi edo eten puntu batean dagoela dio, konfort egoera batean, eta astintze bat behar duela. Bistakoa da, bai, hezkuntza-sistemaren barruko

eragile sozialek galdu dutela iraganeko adorea. Alabaina, bistakoa da, era berean, ikastetxe jakin batzuek eraldaketaren bila dihardutela, bistakoa den bezala guraso gazteek proiektu berritzaileei beren baiezkoa ematen dietela.

Larruzeak seinalatzen dituen oztupo nagusietatik batek, bereziki, arreta pizten du: ikastetxe publikoek duten autonomia falta. Luze dihardu kezka horren bueltan. Eskola publiko ez bihurtzeko argudio hori erabili zuten ikastolei arrazoa zutela aitortzen die. Bejondeiola! Autonomia da, finean, buruhaustea, bai 1993ko legearen aurretik, baita horren ostean ere, Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoaren eredu gainerako ikastetxe estatalen eredu baita, XX. mende osoan bizi izan duen egoeran tratatuta.

Autonomia ahalmena dela dio: ahalmena hezkuntza-proiektua definitzeko, baliabideak eskuratzeko eta prozesuak garatzeko, eskola-komunitatearen

zerbitzura eta, batez ere, ikasleen zerbitzura legokeena. Zehaztapenetara jotzean, dio: "Proiektu bat edukitzea amets bat bezala ulertu behar da (...) gure singulartasunari erantzungo diona eta zentzu komunitarioa izango duena. Autonomiaren definizio horretan elementurik garrantzitsuenetariko bat komunitatea da".

Elkarrizketa aurrerago doan heinean, eta xehetasunetara hurbiltzean, ikuskariak ondoko jauzi hau egiten du: "Gizarteak nolabait bere hezkuntza-sistema autogestionatu egin behar du, gizartea ahaldundu egin behar da eskola-komunitateetan bakoitzak bere proiektu propio eta singularra aurrera eraman dezan, nork bere hezkuntza-proiektua definitzeko eta erabakitzeko nola garatuko dituen, zein baliabiderekin, zein prozesuren bide...". Uf! Orain dela hogeit hamar urte horrelakoak esanez gero, sutan erreko zuketzen gure Gonzalo gizagaixo! Baina, sutan amaitu zuten askok bezala, arrazoa du!

Curriculuma apurtzeko premia, ordutegia apurtzekoa, gelak eta hormak puskatzekoa, beste askatasun batekin lan egitekoa... apuntatzen ditu ildo bezala Larruzeak. Ibilian ibiliz planteatzen ari da bere buruaren jabe izango den eskola berritzailea eta komunitarioa ezinbestekoa dela, egungo gizartearen eraldaketan lagunduko duena.

Ez ditu aipatzen, baina, seguru asko, buruan ditu heziketaren arrazoiak, ikaslearen baitakoak, haurren, nerabeen, gazteen eta helduen hezkuntza-arrazoiak, alegia. Zer da, ordea, gaur egun ikertzaile gehienek adierazten dutena? Pertsona pertsonak berak egin dezan lagundu behar dela, ikastetxea osatzen duen komunitatea komunitateak berak egin behar duen bezala, gizartea gizarteak berak egin behar duen legez, Herria Herriak berak egin behar duen moldez.

Egun, hainbat argudiok argi erakusten dute eraldaketa sozialaren palanka indartsuenetakoa den eskola ezin

dela inoren esku utzi, ez osorik, ezta zati batean ere. Alde batetik, pertsona hezten laguntzeko dauden psikologia-arrazoiak ditugu; bestetik, pertsona pertsonen artean hazteko dauden ikusmira psikosozialak; eta, azkenik, pertsona komunitatean eta komunitatea gizartean edo herrian sendotzeko dauden ongizate argudioak. Eskolak gu komunitario horren esku egon behar du, norbanako singularrez osatzen den eta norbanakook gauzatzen duten autogestioaren baitan.

Ikastolek XX. mendearen azken hiru hamarkadetan ideiatu, aktibatu eta sendotu zuten autogestio eredu hura hankaz gora jartzen saiatu zen 1992ko euskal gobernu, eta 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legea hartarako erreminta bihurtu zen. Hogeita bost urte ez dira alferrik pasatu eta ea XXI. mendearen bigarren hamarkada honetan Gonzalo Larruzea ikuskaria planteatzen ari den gogoetek eta ildoek lur emankorragoa aurkitzen duten! ■■■

BISTAKOA DA GURASO GAZTEEK PROIEKTU BERRITZAILEEI BEREN BAIIEZKOA EMAN DIETELA

“Teknologia aurreratua duen industrian oinarritutako ehun sendoa josi behar da”

JOSEBA BERGARETXE EKAI CENTER-EKO IKERLARIA

Arrasateko industriak nazioarte mailako enpresen eskaerari aurre egiteko duen gaitasuna ikertu du EKAI Center ikerketa zentroak. Sei hilabetez jardun du horretan; eta segida izango duen egitasmo gisa aurkeztu dute. Besteak beste, herrian hutsik eta erabilgarri dauden lokalen inbentarioa egin dute horretarako. Testua: **Iker Oñate**. Argazkiak: **Xabi Urzelai**.

Arrasateko Udalaren enkarguari erantzunez, herriko industria izan du aztergai Joseba Bergaretxek (Berastegi, 1989); Adrian Zelaiaren laguntza izan du horretarako. Bada, Arrasateko enpresek nazioarte mailako negozioen inbertsioei erantzuteko duten ahalmena ezagutarazi dute, besteak beste. Bide horretan, Bergaretxek AMIA azterketa metodoan murgildurik jardun du sei hilabetez, “errealitatearen irakurketa orokorra” eskaini guran. *Ezarpen ekonomiko berriak Arrasaten* bataiatu dute diagnosi txostena.

Arrasateko industriak nazioarteko inbertsioei erantzuteko duen ahalmena ikertu duzue.

Herriko enpresek balizko kanpo inbertsioak erakartzeko duten ahalmen maila ezagutu gura zuen Arrasateko Udalak. Bide horretan, eta gaiaren ezaugarriez jakitun, AMIA ikerketa metodoa aukeratu genuen. Batetik, gaur-gaurkoz, herriko enpresen eskaintzaren indarguneak eta ahulguneak ezagutu ditugu; eta, bestetik, etorkizunari ere erreparatu diogu, sor daitezkeen mehatxuak eta aukerak identifikatuz. Finean, egoeraren irakurketa orokorra

eskaintzen digu AMIA analisiak, sakontze maila handiarekin. Dena den, ikerketa honek ere izango du aurrera begirakorik; Arrasaten hutsik eta erabilgarri dauden egoitzak identifikatu ditugu bide horretan.

Oro har, nola ikusi duzu Arrasate?

Garapen bidean diren herrialde lehiakideekin alderatuta, Arrasateko –eta, orokorrean, Euskal Herriko– langileek soldata altuak dituzte. Hori ona da, ongizatea bermatzen duelako. Baina, kanpo panoramari begira, bestelako ahalegina egin beharra dakar, produktuen prezioetan ezin baitaiteke lehiatu. Hori horrela, Arrasateko industriak teknologian sakondu du, horrek dakarrenarekin: kalitate handiko produktuak ekoiztea, esaterako. Finean, hori litzateke herriko enpresek nazioartean duten bereizgarria. Argitu beharrekoa da, gainera, prezioak murriztea ez litzatekeela irtenbidea, ez baita ekonomiaren etorkizunaren oinarri sendorako bide; besteak beste, epe luzera produktibitatea murriztea ekarriko luke horrek. Beraz, etorkizunera begira, teknologia aurreratua duen industrian oinarrituriko ehun sendoa josi behar da. Hori litzateke aurrera begirako erronka.

XIX. mende bukaeran industrializazioak gogor jo zuen Debagoiena.

Hala da. Oso oinarri sendoa jarri zuen horrek. Arrasateko duen industria tradizioa sekulakoa da; eta,



zer esanik ez, kooperatiben mundutik sortu diren negozioiek. Gainera, industrializazioak erabat aldatu zuen gizartea. Maila ekonomikoan, esaterako, izugarri eragin zuen ongizatean. Alegia, biztanleriaren ehuneko handi baten eskulan beharra dauka gizarte industrial batek; eta hori kalitatezkoa izaten da, normalean, batez ere, soldatei eta lan baldintzei erreparatzen badiegu.

Beraz, industria tradizionala da nagusi ibarrean.

Debagoienean esangura handia dute industria tradizionalaren bueltako sektoreek; metalgintzarena, adibidez. Gisakoei dagokienean, aitortu beharrekoa da berritzen jakin dutela, betiere, filosofia propioari hertsiki heldurik. Bide horretan, teknologia oso presente dago halako enpresetan; nazioarteko merkatuan ahal bezain egokien jarduteko balio izan die horrek. Dena den, horri dagokionez, enpresa handien eta txikien arteko bereizketa egitea komeni da; tamaina txikiko negozioiek –askotan, enpresa handien hornitzaileak– zailtasun gehiago dituzte salto teknologiko hori emateko, beraien dimentsioarengatik, batez ere.

Berrikuntzaren baitan, garrantzitsua da industria tradizionalaren birkualifikazioa?

Bai. Eta erronka potoloa da. Alde batetik, belaunaldi berriei formazio egokia eskainiz egin daiteke, kualifikazio handiko ezagutzak partekatuz eta sektore jakin batzuetan espezializatzeko aukera emanaz. Hein batean, horri dagokionez, ondo bidean doa Debagoiena. Horrez gain, eta jende helduaz mintzo, etengabeko prestakuntza politika eraginkorrak aplikatzeko beharra dago. Praktikan, birkualifikaziora bideraturiko saioak egin egiten dira, baina ez dute helburua lortzen. Hori horrela, belaunaldi berrien beharra sortzen da, baina beste arazo bat dator hor: formazio-aldia amaitu duten horiek zailtasun handiak dituzte lan munduan sartzeko. Horretan sakontzeko beharra ere badago.

Eta inguruko heziketa zentroak bide onetik doaz?

Lehen urtetik lan mundura bideratutako ezagutzak eskaintzea baino gehiago, erdibideko eredia bilatzea izaten da egokiena. Alegia, enpresa betek ezin du erabat determinatu unibertsitateko irakaskuntza, baina unibertsitatea ezin daiteke erabat aparte egon lan mundutik. Bide horretan, interesgarria da hasierako urteetan formazio orokorra eskaini eta, espezializazioan murgiltzean, heziketa zentroen eta enpresen arteko elkarlanean sakontzea. Bide hori nahiko ondo landu da ibarrean. **Arrasateren eta hiriburuen arteko konexio-sare publikoan ere identifikatu duzue hutsunerik.**

Debagoiena ondo kokatuta dago geografikoki, baina bere konexio-sare publikoak ez du gura besteko garapenik. Dena den, gabezia horretatik ere atera ditzake abantailak. Hots, EAEren zentroan dagoenez, lurraldearen erdialdeko polo teknologiko nagusi

bilakatzeko aukera du. Kanpora begira, bestalde, esan behar da konexio-sare publiko horiek ez dutela atzerriko enpresen inbertsioak oztopatzen, nazioarte mailako enpresa handiek ez baitiote horrenbeste erreparatzen distantziari. Beraz, Arrasatek –eta, oro har, Debagoiena– kanpo inbertsioa erakartzeko ahaleginean segitu behar luke, espezializazio teknologiko industrialean sakonduz. Hori bai, ez da komeni enpresen jarduera kanpo inbertsioak erakartzera mugatzea.

Egoitza Debagoienean izan arren, badira beste herrialde batzuetan ekoizten duten enpresak.

Horrek Debagoienean produzitzeko aukera murrizten duela irudi dezake. Dena den, neurri hori alternatiba egokia izan daiteke atzerriko enpresek inbertsioa egiteko; beti ere, jarduera horren oinarria Debagoienean kokatzen bada. Argiago esanda, besteak beste, erabakiak ibarreko egoitzan hartzea edota produktuak bertan diseinatzea lirateke irtenbide. Horrez gain, nola ez, kanpoan produzitzeko erabakiak ez luke langaberik eragin behar; horien guztien lanpostua bermatu behar lukete enpresek. Beraz, halako erabakiekin tentuz jardutea komeni da.

Ekintzailetasuna ere garrantzitsua izan ohi da industria indartzeko.

Hasteko, garrantzitsua da argitzea ekintzailetasunak ez duela zertan autoenplegua eragin. Ez ditugu nahastu behar. Bide horretan, lagungarria da industria tradizionalan sakontzea; eta ekintzailetasunerako ardura norbanako solte horiei eman beharrean, pertsona taldeei eskaintzea –formazio guneetan eta enpresetan–. Modu horretan, ekintzaileek indar handiagoarekin ekingo diote proiektuari. Gainera, beharrezkoa da ekintzaileen lana ez gutxiatea; eta erosotasunean ez erortzea. Alegia, sarritan, dutenarekin konformatuz, erosotasunaren tranpan erortzen dira ekintzaileak, euren produktuei balio erantsia –bereizgarria– emateko ahalegina zokoratuz; hori ekiditea komeni da. Bestalde, erakunde publikoak jakitun dira ekintzailetasunaren garrantziaz; eta, ondorioz, neurriak hartu dituzte hori bultzatzera bidean. Horren adierazle dira diru laguntzak. Horrez gain, enpresa handiek ekimen propioak bultzatzen dituzte, produktu baten diseinua kanpo ekintzaile bati eskainiz, adibidez. Dena den, ez dugu ekintzailetasunarekin itsutu behar, ez baita langabeziari aurre egiteko dagoen aukera bakarra. Bestelako bideak landu behar dira.

2008an hasitako ekonomia-krisiari aurre egiteko neurri eraginkorrak hartu dituzte ibarreko udalek?

Tokiko erakunde batek ekonomian eragiteko dauzkan eskumenak oso murriztak dira; ez dauka aukera handirik ekimen propioak martxan jartzeko. Hala ere, ezin da ukatu gaiaren bueltan onartzen



“EKINTZAILETASUNAK EZ DU ZERTAN AUTOENPLEGUA ERAGIN”

“ENPRESA HANDIAK IXTEAK INGURUKO ENPRESA SAREAN ERAGITEN DU”

“DSBE EZ DA NAHIKOA EKONOMIA DINAMIZATZEKO; DIRU KOPURU TXIKIA DA”

21. orrialdean, Joseba Bergaretxe ikerlaria, Garaia Berrikuntza Gunea atzean duela.

Horri honetan, bestetik, Fagor enpresaren egoitzetako baten aurrean, kooperatibak ibarrean duen garrantzia gogoan.

dituzten neurriak lagungarri direla. Etorkizuneko ekonomiaren ildo nagusiak maila orokorragoan planifikatu behar dira. EAEn ekonomia-krisiari aurre egiteko politika eraginkorrak falta dira. Hau da, asko hitz egiten da industria politikez, baina, gero, datuak aztertzean, azken urteetan industriaren pisuak behera egin duela konturatzen gara; azpimarratu beharrekoa da, dena den, Debagoienean ez duela EAEn besteko pisurik galdu. Era berean, berrikuntza eta teknologia alorreko inbertsioek murrizten dihardute. Horri buelta emateko, garrantzi handiagoa eman behar litzaiokie industriari, gaur-gaurkoz martxan dauden politikien defizitari buelta emateko.

Horren ondorio da Fagor Etxetresnen itxiera?

Bai, eta eragin sozial esanguratsuak dauzka horrek, langabezia izugarri igotzen delako. Gainera, langabe horiek zailtasun nabarmenak dituzte berriz ere merkatuan sartzeko. Fagor Etxetresnen kasuak, hala ere, izan zuen bestelako eraginik: enpresa sinbolikoa izanik, itxierak herritarren animoa eta egoerarekiko zuten pertzepzioa kaltetu zituen. Beraz, halako egoerak ekiditeko neurriak hartu behar dira, dudarik gabe. Bide horretan, garrantzitsua da erakunde publikoen arteko elkarlana.

Halako enpresen itxierak tamaina txikiagoko negozioetan ere badu eraginik...

Enpresa handiak ixteak inguruko enpresa sarean eragiten du nabarmen; tamaina txikiko negozio ugari dago tartean. Finean, enpresa handiek inguruko herritar ugariri ematen diote lan, zeharka bada ere. Sistema horrek zonaren garapen ekonomiko industrial esanguratsua lortu du, baina, era berean, enpresa horiek erortzean, sarea kolokan jartzen da. Enpresa txikiek dependentzia handia dute handiekiko. Horrek bestelako sektoreetan ere badu eraginik. Esaterako, langabeziaren gorakadak eta egoera ekonomikoaren pertzepzio negatiboak kontsumoa murrizten dute; beste modu batera esanda, zerbitzuen sektoreko enpresek gutxiago salduko dute, adibidez. Beraz, ezin uka enpresa baten itxierak gizarteko alor ugarian eragiten duela. **Erosteko ahalmena murriztea dakar langabeziaren gorakadak. Horri aurre egiteko neurri eraginkorrak hartu dira?**

Herritarren diru-sarrerak bermatzeko hainbat neurri daude; Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), horien artean. Modu horretan, oinarri ekonomikoa eskaini gura zaie diru-sarrerarik ez duten horiei. Hala ere, hori ez da nahikoa ekonomia dinamizatzeko, diru kopuru txikia izaten baita: kontsumoan ez du behar beste eragin. Hori horrela, DSBEk ezin du izan gizarte baten oinarri; enplegua bultzatu behar da, ekonomian eraginkortasunez eragin gura bada. Bada, neurri eraginkor faltan, hankamotz gaude alor horretan. ■■■

Iodo faltaren ondorioak

OSASUNA TIROIDEA



Testua: Iñaki Peña
Barne-medikua
Argk.: es.m.wikipedia.org

Tiroidea lepoaldeko behealdean dugun glandula edo guruina da. Sistema endokrinoaren osagarria da; beraz, hormonekin lotuta dago, tiroidearen hormonekin, hain zuzen ere – zehazki, T3 eta T4 izenekoak–. Hormona horiek erregulatzen dute kaltzioaren metabolismoa, besteak beste, eta iodoari esker sortzen dira. Izan ere, iodoaren eskasia da zergati nagusietakoa tiroidearekin lotutako gaixotasunak agertzeko: Goloa edo bozioa, alde batetik; eta hipotiroidismoa –tiroideko hormona baxuak–, bestetik.

Golo endemikoa

Hasteko, goloa edo bozioa tiroidearen hanturari deitzen zaio. Kausarik ohikoena iodo gabezia da, eta golo endemikoa izena hartzen du, diferentzia geografikoak badaudelako eta munduko eskualde zehatz batzuetan agertzen delako.

Hauxe da, hain zuzen ere, artikulu honen funtsa, eta ezaugarri historiko eta tokian tokiko haietan zentratuko gara. Izan ere, iodoaren gabezia ikusten da askoz gehiagotan barnealdeko eskualdeetan kostaldekoetan baino. Gauza jakina da gatz iodatua itsasoan presente dagoela berez – arrainetan eta itsaskietan–, eta mendialdeetan, aldiz, lurra pobrea da iodoaren kopuruari

dagokionez, baita bertako ura ere. Ondorioz, mendialdeko eskualdeetako janarien eta uraren bidez gizakiak jan eta edan duena historikoki iodo dosi txikiekin etorri da, eta hortik gabezia.

Betiko moduan, lurralde aurreratueta zuzendu ahal izan duguna herrialde txiroetan gaur egun ere mantendu egiten da, hein handi batean: Afrika beltzeko herrialdeak dira gabezia honekin lotutako hilkortasun handienak dituztenak, beste hainbat gaixotasunekin gertatzen den bezala; batik bat, gosetearekin eta pobreziarekin datozenak. Baina, handik kanpo, oso esanguratsua da ikustea Latinoamerikan zeintzuk diren herrialderik kaltetuenak, Andeetako hiru herrialde menditsu, hain zuzen ere: Ekuador, Peru eta Bolivia. Eta Asian, aldiz, kostalderik ez duten eta menditsuak diren bost herrialde: Mongolia, Azerbaijan, Turkmenistan, Tajikistan eta Uzbekistan.

Zona menditsueta, bereziki

Gure Lehen Munduan, adibide historiko nabarmena izan da Extremadurako iparraldean dagoen Las Hurdes eskualdea, Caceresko probintziaren iparraldean Salamancako probintziaren mugan, Gatako eta Frantziako mendilerroen inguruetan, La Albercatik gertu.

Zona menditsu horretako biztanleek pobrezia gorria jasan

zuten XIX. mende amaieraren eta XX. mende hasieraren artean. Hango biztanleen isolamenduak eta osasun baldintza eta egoera sozioekonomiko eskasek hainbat pertsona ezagunen arreta erakarri zuten; besteak beste, Miguel de Unamuno idazle eta filosofoarena, Gregorio Marañon medikuarena eta Alfonso XIII.a erregearena. Izan ere, orduko Espainiako erregeak eskualdea bisitatu zuen 1922an, bozio eta kretinismoaren arazoak bertatik bertara antzemateko. Halaber, oso famatua da Luis Buñuel zinemagileak 1932an egindako dokumentala, *Las Hurdes, tierra sin pan* izenburukoa eta han pairatutakoa salatzen duena.

Debagoiengan ere bai

Debagoiengan ere, bestela, endemikoak dira bozioa eta hipotiroidismoa, eta mendialdeekin lotutako faktoreengatik etorri dira historikoki, gaur egun, batez ere, adinekoengan oraindik ere antzematen dena. Hobekuntza handia izan da gatzak gaur egun iodo kopuru egokia izatea –gatz iodatua–, eta orokortua dela herritarren dietan itsasoko janariak ere egotea.

Herrien arabera, lehenengo postuan Aramaio dago modu nabarmenean –ikereta epidemiologiko sakona egin zuten bertan duela 30 bat urte–, eta bigarrena Oñati da intzidentziari dagokionez.



DEBAGOIENGAN ENDEMIKOAK DIRA BOZIOA ETA HIPOTIROIDISMOA, MENDIALDEEKIN LOTUTAKO FAKTOREENGATIK

Orain arte esandako guztiak, hala ere, ez du ukatzen beste faktore batzuk ere egotea, eta aipatuko ditugu: Hashimotoaren gaixotasuna eta beste tiroiditi batzuk, Basedow-Gravesen gaixotasuna, gaztaroko goloa –jaiotzetiko hipotiroidismoak eragindakoa–, tiroidearen

tumoreak eta farmako batzuen alboko eraginak. Halaber, haurdunaldiak eta bularra emateak ere okerragotu dezakete hipotiroidismoa, eta, hori dela eta, azken urteotan iodoa errezetatzen da modu orokorrean.

Amaitzeko, hitz batzuk lehen aipatutako kretinismoa

definitzeko. Izan ere, iodoaren eskasiak ekarritako buruko gaixotasuna da, gaitasun intelektual murritzten duena. XVIII. mendean deskribatu zen lehenengo aldiz, eta Frantziako *crétin des Alpes* esamoldea erabiltzen zen, Alpeetako eskualdeetan prebalentzia handia zelako. ■■■

Errepide eta baso artean

KIROLA BERGARAKO MUGARRIEN MENDI IBILALDIA (V)

Testua: Eneko Azurmendi
Argazkiak: Pol-Pol taldea

Bukatzen ari gara Bergarako mugarren ibilbidea. Gaur, azkenaurreko etapa egingo dugu, Ubera eta Kanpanzar artekoa.

Uberako plazan hasiko dugu gaurko etapa. GI-2632 errepidea hartu eta Elgetarantz joko dugu. Uberagoena baserriaren aurretik pasatu eta porlanezko pistatik jarraituko dugu. Lehenengo bidegurutzean, ezkerretara doan Egurbide Zahar baserriko bidea laga eta aurrera jarraituko dugu, Sesto erreka gure ezkerrean daramagula, eta bigarrenen, ezkerretara hartuko dugu –hego-ekialdera–, eta Urrejolaegi Zaharra baserriaren bidetik jarraituko dugu aurrera.

Gorantz egin eta Egurbide aldetik datorren bidearekin bat egin ondoren, aurrerago tentsio-kable batzuen azpira helduko gara. Eskumako bidea hartuta, Dawson-zipres basoaren



ETAPA HONETAN ZEHAR HAMABI TRIKUHARRI DAUDE

barreketik erreka-zulora iritsiko gara. Mendebalderantz jarraituko dugu, aldapan gora. Elgetara ura eramateko erabiltzen den bidea jarraituko dugu –mendebaldera–, berehala Uraixa baserriaren

Ibilaldia

Distantzia	10,9 kilometro
Iraupena	4-5 ordu inguru
Zailtasuna	Erraza
Ibilbidea	Zuzena
Seinaleztatuta	Ez
Bidea	Mendi pista eta bidexkak



Ezkerreko orriko irudian, Sagasta baserriko bidean, Elorrio agertzen da urrunean.

Eskuineko orriko irudian, Asentzioko putzua, 9. mugarria argazki handian eta 3. mugarria txikian.



aurrean pista batekin bat egin arte. PR markak jarraituta, Asentzioko putzura iritsiko gara. Ermitaren azpiko aldetik, Bergara aldera doan pista hartuko dugu. Ondoren, Jaurekogietxetxo baserri iritsiko gara, eta han Elgetarantzko bidea hartuko dugu. 150 metro egin ondoren, bidea utzi eta ezkerretara sartuko gara, Galarraga eta Zabaleta baserriak ikusten ditugula.

Aurrera jarraitu eta Kanpanzartik Elgetara doan bidea irtengo gara. 200 bat metro egin ostean, ezkerretara garbi ageri den pista bat, PR batek markatutakoa, hartuko dugu.

Sagasta baserri heldutakoan, porlanezko bidetik jarraituko dugu ekialdera, errepide aldera. Aurrera jarraituta, berriro ere

Kanpanzartik Elgetara doan bidea iritsiko gara. 70 bat metro egin ostean, gure ezkerretik basoan gora doan bidea hartuko dugu.

Errepidetik gora, basoko bide batetik jarraituko dugu hegoalderantz, bidegurutze bat pasatu, eta basoan hegoalderantz

jarraituko dugu. Baso bidea amaitzean, gure aurrean eta gainean izei batzuk ikusiko ditugu. Eskumara jarraituko dugu beherantz –hegoaldera– eta laster Sustraitza aldetik datorren markatutako –GR– bidearekin bat egingo du. Beherantz jarraituz, Kanpanzar aldera gerturatzen hasiko gara. Azpiko aldean Lasarte baserria eta San Miguel del Monteko bidea ikusiko ditugu. Azken jaitsiera bat falta zaigu. Galbiderik gabeko pistan aurrera egin eta Kanpanzarko tabernara iritsiko gara; azken mugarria Zelaitxueta baserriaren seinalearen ondoan dago. Ibilbidea amaitutzat emango dugu han. Informazio gehiago www.pol-pol.net webgunean aurkituko duzue. ■■■



Pixoihalen aldaketa

ADITUEN ESANETAN HEZIKETA



Testua: Txusma Azkona
*Haur Hezkuntzan
diplomaduna*
Argazkiak: www.bebesymbarazos.com

Historia / Ez dut inoiz / herrialderik konkistatu. / Ez dut penizilina asmatu, / ezta formula matematikorik ere. / Ez dut izurriterik gelditu, / ez dut gerra egin inoren kontra. / Ez dut itunik sinatu, / ez dut Nobel saria merezi. / Baina umeari fardela aldatzen diodan bitartean / badakit / Historia idazten ari naizela.

Zaila da Karmele Jaiok bere olerkian azaltzen duena baino hobeto adieraztea.

Budapesteko Loczy Institutuan urteak daramatzate Historia egiten. Haur bakoitzari pixoihal aldaketa batean eskaintzen diotena Historia da. Nork bere Historia egitea.

Loturak sendotzeko uea

Pixoihalak aldatzerakoan haurrarekin bizi dugun harremanaren intentsitatea errepika ezina da. Arrazoi hori dela eta, momentu hauek atseginak egitea komeni da eta, lehenik eta behin, beharko dugun guztia eskura izaten ahaleginduko gara: pixoihalak, toallatxoak, bestelako zapiak, eta abar.

Pixoihala aldatzen dugun bitartean, gure keinuak leunak, arinak eta adeitsuak izango dira. Horrexegatik, adi egon behar dugu: adibidez,

umetxoentzat, hankak orkatiletatik eustea mingarria izan daiteke. Garbitzerakoan ere tentuz ibili behar dugu, izur guztiak behar bezala garbitzen eta gunerik sentikorrenak samurki zainduz. Bada zinez betetzen den esaldia: tratatuak izan garen moduan, tratatuko dugu guk ere.

Momentu hori haurrarekin dugun harremana edo lotura sendotzeko baliagarri izan beharko litzateke; era berean, hizkuntzaren erabilera sustatzeko ere balizkoa izango zaigu: gertatzen ari denari izena jartzeak eta berau deskribatzeak ingurua ulertzen laguntzen die; modu honetan, gertatu behar dena hobeto ulertzen dute, eta horrek ziurtasuna ematen du.

Hasiera batean, aldaketa haurra etzanda dagoela egingo dugu. Niniaren mugimenduaren garapena aurrera doan heinean eta zutik jartzeko gai denean, pixoihalaren aldaketa haurra zutik dagoela burutu ahalko dugu; modu horretan, haren mugimendu garapena errespetatuko dugu.

Esfinterren kontrola

Pixoihalaren aldaketarekin erabat harremanduta esfinterren kontrola legoke. Ez da kontrol fisiologiko hutsa; alde afektiboa oso garrantzitsua da eta prozesu honetan helduok hartutako jarrera erabat esanguratsua da

–ikerketen emaitzek aipaturiko prozesua nerabezaroan norberaren burua zaintzeko moduarekin erlazionatzen dute–.

Horregatik guztiagatik, funtsezkoa da prozesu hori haurraren doktrinatzeari ez bilakatzea. Haurraren erritmoa errespetatzea ezinbestekoa da. *Handi izatearen* desioak helduak imitatzea ekarriko du, eta, horrenbestez, helduok bezala pixa eta kaka egitearen nahia sorraziko die. Modu horretan, bere eskaeraren, interesaren eta jolasaren bidez erakutsiko digute prozesuarekin hasteko prest daudela —gainera, bere atxikipen maila handituz doala behatu beharko dugu–.

Helduak jarrera adeitsu baten bidez prozesua errazteko garaia izango da, beraz. Pixontzian edo komunean egiten hasten denean ez da ospakizunik egin behar; izan ere, ez errefortzu positiboek ez eta kexek ere ez baitute akonpainamenduan laguntzen; prozesua modu naturalean hartu behar da.

Aurreko batean Lorea Agirrerri entzuten nion moduan, prozesu hauetan guztietan bi dira gakoak: denbora eta presentzia.

Atxikimendu ziuorra lortzeko bidean, pixoihal aldaketa eta esfinterren kontrola oso lagungarri dira. Eta atxikimendu horretarako, denbora eta presentzia ezinbestekoak dira. ■■■



**PIXOIHALAK ALDATZEAN
HAURRAREKIN BIZI DUGUN
HARREMANAREN
INTENTSITATEA ERREPIKA
EZINA DA**

Tartufo jatetxean terraza berritua

OTORDUAN



Jon Ander Eizagirre
Sukaldeburua
Argk.: Tartufo eta A. T.

Bergarako Tartufo jatetxean berrikuntzak dauzkagu uda honetan. Izan ere, terraza berritu eta parrila eder bat jarri dugu.

Terraza berria eta parrila
Jatetxearen kanpoko aldean geneukan igerilekua kendu egin dugu eta gune horretan, argazkian ikusten den terraza egokitu dugu. Bertan afaltzeko aukera ere

eskaintzen dugu, eta dantzaldiak ere egin daitezke espazio horretan; beraz, deitu erreserbak egiteko.

Parrila ere duela gutxi estreinatu dugu, eta txuleta, itsas zapoa, entrekota eta bakailaoa prestatzen ditugu bertan.

Eskaintza zabala

Astegunetan eguneko menuak izaten ditugu 12,50 eurotan eta asteburuetako menua 14 eurotan eskaintzen dugu. Menu berezia, berriz, 22 eurotan izaten dugu. Orain, lehen aipatutako parrila

aukera ere eskaintzen dugu otorduetarako.

Jatetxeak 100 lagunendako tokiak dauka eta tratua oso etxekoa izaten da beti. Asteburu gauetan, gainera, taldeen erreserba bitartez zabaltzen dugu Tartufo. Bezeroek aukera izaten dute jangela euren gustura moldatzeko.

Lorategiak eta aparkalekua ere badauzkagu; asteburuetako eguerdian, gainera, umeendako jolas txoko bat moldatzen dugu, neska-mutikoak jolasean lasai ibil daitezten. ■■■



Entsalada epela

Osagaiak

(lagun batendako)

- Askotariko letxugak
- Gulak, 75 g
- Onddoak, 50 g
- Berakatza
- Langostino bat
- Tipula deshidratatu apur bat
- Ozpina-oliorako
- Piper gorria
- Piper berdea
- Tipulina
- Olio
- Ozpina
- Gatza

Prestaketa

1. Pasa zartaginetik gulak, onddoak eta langostinoa.
2. Ozpina-olioa egiteko, zatitu piper gorria, berdea eta tipulina, eta nahastu hori guztia olioarekin, ozpinarekin eta gatzarekin.
3. Jarri plater batean askotariko letxugak, gainetik ipini epeldutako osagaiak eta gero, bota ozpina-olio apur bat.

Zailtasuna: ● ● ● ● ●

Tartufo jatetxea

- **Helbidea:** San Juan auzoa 35, Bergara.
- **Telefonoa:** 620 773 383 edo 943 76 35 51.
- **Posta elektronikoa:** tartufo@tartufobergara.com.
- **Webgunea:** Tartufobergara.com.
- **Facebook:** [Facebook.com/Tartufo.Jatetxea](https://www.facebook.com/Tartufo.Jatetxea).



TARTUFO JATETXEARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Aurreko zozketako irabazlea:
Isabel Guerra Cordero (Arrasate)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Uretako tendentzia

MODA BAINUJANTZIAK

Testua: Ane Vitoria
Argazkiak: Unsplash.com

Udan sartu berri gara, eta, horrekin batera, hondartza eta igerileku denboraldiak estreinatze garaia heldu da. Bada, momentu ezin hobea da aurtengo udako bainuko tendentzia nagusia zein izango den jakiteko: bainujantziak. Ukaezina da uda honetan bikiniak ere presentzia handia izango dutela; hala ere, 90eko hamarkadan nagusitu ziren bainujantziak indartsu datoz, eta, horregatik, dendetako erakusleiho eta katalogoetan gailentzen dira. Uda honetako behar-beharrezko jantzi bilakatuko da bainujantzia.

Momentuko diseinuak

Udaberrian tendentzia izan diren modek eragin zuzen-zuzena izan dute udan eramango diren bainujantzien diseinuetan. Hori kontuan izanik, hondartzetan eta igerilekuetan gailenduko direnak honako diseinu hauek izango dituzte: alboetan korapiloak dituzten bainujantziak, *off the shoulders* deritzenak, *bardot* eskotea dutenak, kolore bizikoak, asimetrikoak, loredun eta *vichy* laukien estanpatuak dituztenak eta, nola ez, bolantedun bainujantziak. Dendetan aurkituko ditugun bainujantzien diseinuak asko eta era askotarikoak dira, eta, horregatik, emakume bakoitzak bere gustu eta gorputzera ondoen egokitzen den bainujantzia hautatzeko aukera paregabea izango du uda honetan.



Trikini baten adibidea.

Trikiniak ere modan uda honetan

Bainujantzien berpiztearekin batera trikiniak ere heldu dira denda eta erakusleihoetara. 2000n, Yves Saint Laurent eta Versace markak berreskuratu zituzten trikiniak aurten ere modan daude. Cut out ebaketa tendentzia da uda honetan; hala ere, mozketak ez dira soilik bainujantziaren alboetan izaten, eskotearen behealdean zein tripako zonan ere gailentzen dira. Aurtengoak, gainera, trikiniaren esentzia errespetatzeaz gain, modan dauden elementuekin uztartzen dira: bolanteak edota itxura asimetrikoak, esaterako.

Arrakasta handien dutenak

Estilo eta diseinu ezberdinetako bainujantziak aurkituko ditugun arren, badaude batzuk oso modan daudenak. Lehena *high leg* deritzona da. Bainujantzi horren ezaugarri esanguratsuenak, hitzak dioen moduan, hankako zona altua duela da. Hain zuzen ere, 90eko hamarkadan telebistan ematen zuten *Baywatch (Los vigilantes de la playa)* telesailko bainujantziak dira horiek. Bolanteak dituzten bainujantziak ere modan daude, eta eskotean, gerrian edota bizkarrean dituztenak dira arrakastatsuenak. *Bardot* eskotea duten bainujantziak ere tendentzia dira udan honetan. Egia da ez dela bainujantzirik erosoena; hala ere, ederki ematen duen eskotea da, gorputza estilizatu egiten duelako. Azkenik, bizkarrean eskote oso nabaria duten bainujantziak ere *top* dira; ia ipurdiraino heltzen direnak, hain zuzen ere. Horiei esker, bizkarrari izugarritzko garrantzia ematen zaio, modu horretan emakumearen sentsualitatea azpimarratuz.

Kaleko janzkera

Bainujantzia hondartza edota igerilekuko jantzi izatetik kaleko janzkera izatera ere pasa da. Tendentzia hori bainujantzia kamiseta bezala erabiltzean datza eta gainetik *jeans* edota praktika motz batzuk ezartzean. Adibide argiak dira dendetan dauden *boody*-ak. Hondartzako musika jaialdietan jantzteko aukera paregabea da hau. ■■■



Ezkerrean, aurten tendentzia den trikini bat, mozketa tripako zonaldean duena, hain zuzen ere.

Eskuman, aurten modan dauden bainujantzien adibide ezberdinak.



Babes-hesiak

MOTORRA BAZTER-BABESAK

Arabian, Foronda inguruan ateratako argazkian, ordezkatu den bazter-babesa ikusten dela.



Testua: Imanol Beloki
Argazkiak: Mikel Ezkerro

Motorrean aritzen direnek hainbat neurri hartu behar izaten dituzte errepidera irteten direnean: ibilgailua behar den moduan izatea, kaskoa eramatea... baina bada neurri bat kontrolatu ezin dutena: errepideetako bazter-babesak, hain zuzen ere.

Babes neurri horiek segurtasuna bermatu baino gehiago, arriskua areagotu egin dezaketela adierazi izan dute motorzaleek istripuren bat izan dutenean. Babes-hesiak jartzearen aldeko apustua egiten dute, eta, urte askoko borrokaren ostean, Espainiako Diputatuen Kongresuak erretiratu egingo ditu bazter-babesak, eta, horien ordezkari, babes-hesiak jarri.

Proposamen hori Stop Guardarrailes kolektiboak bideratutako inkestaren bitartez gauzatu ahal izan da, eta *Change.org* webgunearen bitartez 134.000 sinadura batu dituzte. Sistema horren kostua 25 eurokoa izango da metro lineal bakoitzeko, eta motorzaleek defendatzen dute azpiegiturak duen kostua ez dela gehiegizkoa.

Arabian, hesiak ordezkatzan
Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak agintaldia bukatu baino lehen aldatuko ditu, moztu egin dezaketelako, motorzale, txirindulari eta gidarientzat arriskutsuak izan daitezkeen errepide bazterretako segurtasun

hesiak. Agintaldi honetan zehar, Zaldiarango mendatean geratzen diren era horretako azken tarteetako hesiak aldatuko dituzte. ekainaren 1ean Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko diputatu Josu Lopez Ubiernak Arabako Batzar Nagusietan iragarri bezala.

Gorlan, aspalditik

1993an Gorlako auto igoera Espainiako Txapelketarako puntuagarria izan zen, eta, errepidea asfaltatzeaz batera, tramu arriskutsuetan babes-hesi bikoitza jarri zuten antolatzaileek arriskua ikusten zuten lekuetan. Hala, duela 24 urte jarritako babes-neurri horiek, bertan jarraitzen dute gidarien arriskua murrizten dutelarik. ■■■



“Puntu beltzak markatu beharko genituzke”

IÑAKI USABEL MOTORZALEA

Iñaki Usabel arrasatearrak positibotzat hartu du Espainiako Diputatuen Kongresuak hartutako erabakia; gaineratu du motorzaleek egiten dituzten elkarretaratze eremuak aztertu beharko liritekeela.

Babes-hesiak beharrezkoak dira?

Bai, noski. Gaur egun dauden bazter-babesak kutzilen modukoak dira. Elorrioko ezagun batek, Berriztik gora dagoen Trabakua portuan aurreratze bat egiten ari zenean, haren kontra jo, eta besoa moztu ez, baina sekulakoa egin zuen. Motorzaleok elkartzan garen leku finkoetan, behintzat, babes-hesiak jartzea oso ondo ikusten dut. Hala ere, ikusi ditut errebotatu moduan egiten duten beste batzuk... Oraingoak, behintzat, aldatu ditzatela. **Poztekoa da Espainiako Diputatuen Kongresuak hartutako erabakia?** Bai; denean ezingo dituzte aldatu, baina ezagutzen ditut hainbat leku oso arriskutsuak direnak, eta jarri beharko liritekeenak. Ez dakit konponbidea zein izan daitekeen, baina aurrerapauso bat izan daiteke motor gidari bakoitzak bere udalean puntu beltzak markatzea eta, poliki-poliki, horietan behar bezalako babes neurriak jartzea.

“Jarri beharreko neurria dela iruditzen zait”

AITOR ZABALETA PILOTUA

Aitor Zabaleta auto gidari bergararraren ustez, bazter-babesak aldatzea onerako da. Lasterketetan ez ezik, beste edozein momentutan gertatu daitezkeen istripuetan ere arriskua murrizten dutelako.

Babes-hesiak beharrezkoak dira?

Puntu beltzetan segurtasuna bermatzen dute; auto-gidarientzat, motorzaleentzat... Lasterketetan, auto baxuekin aritzen garenontzat ezinbestekoak dira. Bestalde, aipatu nahiko nuke ez dela berdin ikusten kamioi batetik edo auto baxu batetik, eta, mozteko arriskuaz gain, azpitik ere pasa gaitezke, eta istripua larriagoa bihurtu. **Poztekoa da Espainiako Diputatuen Kongresuak hartutako erabakia?** Albiste ona da; hala ere, Euskal Herrian leku askok daukate babes-hesien beharra. Gorlan, esaterako, duela 24 urte jarri genituen lasterketa baterako. Diputazioak jarri beharrean, antolakuntzakook jarri genituen, eta pozgarria da hauek kendu ez izana eta gaur egun bertan jarraitzea. Hala, lasterketan ari denaz gain, beste edozeinentzat ere lagungarriak izan daitezkeela uste dut.

Joana Manzidor

GURE ARTISTAK

Testua: Ane Vitoria
Argazkiak: Joana Manzidor

34 urte ditu Joana Manzidor arrasatearrak. Arte Ederrak ikasi zituen Leioan, eta orain, Produktu Grafikoen Diseinuen gaineko ikasketak amaitzear dago.

Beti gustuko izan duzun alorra da artea?

Bai; txikitatik margotu izan dut. Gaztetan, pinturako eskoletara joaten nintzen, eta egun, Arrasateko Margo Taldean nago. Gehiagotan joatea gustatuko litzaidakeen arren. Gainera, asko gustatzen zait eskuekin moldatu daitezkeen gauzak egitea, gauzei forma ematea; baita jostea ere.

Margotzea da gehien gustatzen zaizuna, hortaz.

Hala da, margotzea pasioa da niretzat, eta margotzen dudana zenbat eta handiagoa izan, hobeto. Obrak handiak direnean, ikusgarritasun handiagoa dutela uste dut. Elkarlanean aritzea gustatzen zait, artisten artean sortzen den giro onagatik. Jende berarekin esperientzia elkarbanatzean eta proiektuak aurrera ateratzean lortzen duzun saria oso ona da.

Obra handiak margotzea gustuko duzu; zergatik?

Adibidez, pareta bat margotzean, zuk eginiko lana denbora luze batez bertan mantentzen da, eta, modu horretan, nahi duenaren esku dago margolan hori. Kaletik pasatzen den edonorentzat dago eskuragarri, publiko oso

zabalarentzako bideratuta dauden lanak dira horiek.

Orain, grafitiak eta muralak egiten buru-belarri zabilta...

Bai, mundu horretan murgildu naiz; nire kontu zein elkarlanean.

Batetik, Arrasateko Muralart



taldea sortu dugu eta laster elkarlanean egingo dugu Arrasateko bigarren murala. Bestetik, Helena Azkarragaurizarrekin eta Lexuri Doyaguerekin batera proiektu batean nabil; oraingoz, mural bakar bat margotu dugu, baina gure asmoa pareta gehiago barnean hartzea da.

Biserak ere margotzen dituzu.

Hala da. Lehen, azoka gehiagotan izaten nintzen eta bisera gehiago egiten nituen. Orain, beste gauza batzuekin nabil; horregatik, jendeak eskatzen dizkidan heinean egiten ditut. Hala ere, uda partean berriz ere hasiko naiz.

Gainera, Artean erakusketan ere izan zinen.

Esperientzia zoragarria izan zen, benetan. Beste artista batzuekin erakusketa bat prestatzea oso interesgarria izan zen. Gainera, kontaktuan jarraitzen dugu; gozamina da. Hilabeteak aritu ginen lanean, bilerak egiten, kartela zein eskuliburua prestatzen... eta erakusketa horren guztiorren emaitza izan zen.

Garrantzikoena, niretzat, mota horretako proiektuak garatzen jarraitzea da.

Baduzu proiekturen bat esku artean?

Lexuri, Helena eta Maddi Urizarrekin batera, artearen inguruko proiektu bat martxan jarri guran gabiltza. Tailerrak eskaini, muralak eta diseinuak egin... Oraindik, ordea, nahiko berde dagoen gauza da; hala ere, ilusio handia daukagu. ■■■



Argazki txikietan, artista honek eginiko beste lan batzuk.

Argazki nagusian, Artean erakusketan Manzidorrek aurkeztutako grafitia.



“Elementu gutxikoa da ‘Markak’, soila”

KULTURA AITOR ETXEBARRIA, ‘EL_TXEF_A’ MUSIKARIA

Testua: Aitziber Aranburuzabala
Argk: Sergio De Arrola eta Balza

El Txef_A alter egoaren atzean Aitor Etxebarria dago (Gernika 1985). DJ ezaguna sarritan izan da Bergaran; azkeneko, Pentekoste jaietan. Gernikako bonbardaketa abiapuntu duen *Gernika.Markak* (Hannot Mintegia, 2017)

dokumentalaren soinu-bandarekin atera duen *Markak* lana aurkezten ari da orain. Bartzelonako Sonar jaialdian izan zen aurreko astean.

Debagoienara sarritan eta gustura etortzen zarela diozu.

Bai, horixe! Bergarakoekin konexio handia dut; Gernikan elektronika mugimendurik ez zegoenean, Bergarako areto txikietan jai alternatibo asko egiten ziren, aspaldiko lagun asko ditut. Hango publikoa ohituta dago musika elektronikoa entzutea, errazagoa izaten da han pintxatzea.

Orokorrean, bailara musika elektronikaren zalea dela diozu?

Kanpotik beste modu baten ikusten da, eta bai, zona hori nire ingurua baino aurreratuago ikusten dut. Debagoienan homogeneizatuago dagoela uste dut; gustatzen zait rockzaleak eta elektronikazaleak batera ikustea.

Elektronikarekiko zaletasuna normalizatuago dagoela diozu.

Bai, orain dela urte batzuetatik hona. Lehen, *underground* zen, eta orain, gehiago azaleratu da. **Musika kontuetan hasi, baina, batera jotzen hasi zinen.**

Txikitan pianoa eta solfeoa ikasten hasi nintzen, eta kontserbatorioan, geroago, Orkestrako Perkusioa.

Egia esan, berandu samar; eta une berean, soinu-teknikari ikasketekin hasi nintzen, albo batera utzi nituen kontserbatoriokoak. Konturatu naiz, baina, ikasitakoek lagundu izan didatela.

Orain arte *El Txef_A* moduan ezagutu zaitugu, baina Aitor Etxebarria izenarekin ere sinatzen duzu orain. Zergatik?

Hannotek dokumentalaren soinu-banda egiteko proposatu zidanean, argi nuen Aitor Etxebarria moduan sinatuko nuela. Hamar urte bete dira *El Txef_A* moduan lehenengo diskoa atera nuenetik; ate berriak zabaltzeko baino gehiago, energia berriak hartzeko egin nuen nik hautu hura. **Zure lehenengo soinu-banda da *Markak*. Zer dela eta?**

Aspaldiko laguna dut Mintegia; orain dela lau urte inguru Audience musika taldean zebilela egin zuten *Jai Alai Blues* filmean kolaboratu nuen. Honako lan hau egiteko eskatu ziotenean, soinu-banda osoa egiteko proposatu zidan Hannotek; betidanik izan dut zinemarako lan egiteko ilusioa; azkar eman nion baiezkoa.

Horrez gainera, gernikarra zara.

Bai, hala da, eta askotan egon naiz hango saltsetan sartuta. Filmak bonbardaketaren testuingurua jasotzen badu ere, herrian sortu diren energia berriei buruzko gogoeta ere egiten du. Hor dago, esaterako, *Lobak* ekimena; bonbardaketaren lekuko zuzena jaso dugun azken belaunaldiko gazteok sortutakoa da, gure amamek eta aitonek bizi eta kontatu diguten hori zaintzeko eta



‘GERNIKA.MARKAK’ DOKUMENTALAREN SOINU-BANDA AURKEZTEN ARI DA ORAIN

zabaltzeko dugun betebeharrak bultzatuta. Era berean, kontziente naiz nire musikak atzerrian oihartzun handiagoa izan duela; horren erakusle da *Markak* atera eta segituan Berlingo komunikabide batetik deitu zidatela. Nire izenak 1937an Gernikan gertatu zena kontatzeko balio badu, pozik geratu naiz! **Zelako soinu-banda sortu duzu?** Sortze prozesua inputsihoa izan da, eta irten dena material nahiko soila da, elementu gutxikoa. Estiloa? Neoklasikoaren, minimalismoaren eta *noise*-ren arteko nahasketa dela esan daiteke. Ez da soinu garbi bat, isilune asko ditu, erritmoak oso pausatuak dira, errepikakor samara ere bada... Testigantza

asko daude filmean eta ez nien horiei trabarik egin gura, esaten zituztenak indartzea da asmoa. Gustura nago emaitzarekin eta jaso ditudan kritikekin ere bai. Dokumentala ikusteko gogoia sortu diela esan didate askok. **Nola aurkezten duzue zuzenean?** Agertokian zazpi musikari izaten gara. Diskoan kolaboratu duten sei musikarekin izaten naiz: Hasier Oleaga bateria eta perkusio-jolea; Ibai Etxebarria, nire anaia, pianoan; Hannot Mintegia gitarrarekin eta abesten; Jatsu Argarate, Kokein taldeko baxu-jolea; Leire Pikabea, biolinarekin; eta biolontxeloarekin Itziar Lertxundi. **Sonar jaialdian izan zarete.** Musika garaikidearen eta soinuen ikerketaren jaialdi



garrantzitsua da. Han jotzeko deia jasotzea oso adierazgarria izan zen; erakusten du ekimena alde politikotik baino gehiago, alde humanotik ikusi dutela. Bezperan etxean erakutsi genuen eta uztailearen 15ean New Yorken izango gara. ■■■

Argazki nagusian, Aitor Etxebarria, *El Txef_A* musikaria.

Txikietan, Bergaran jaietan eta *Markak* lanaren azala.

Heriotzaz

LIBURU ARTEAN



Jack y la muerte

Egilea: Tim Bowley
Argitaratzailea: OQO
Argitaratze urtea: 2012
Orrialdeak: 25
Generoa: Ipuin ilustratua



Testua: Dorleta Kortazar
Ipuin kontalaria

Txoko honetarako liburua aukeratu ezinik nabilela jakin dut Tim Bowley ipuin kontalari eta idazle handia zendu dela. Esan genezake, beraz, oraingoan Heriotzak berak aukeratu duela nire partez, eta bere buruaz aritzeko, gainera. *Jack y la muerte* heriotzari buruzko ipuin zoragarria da, Irlandako ipuin tradizional batean oinarritua, eta bertan kontatzen da hiltzorian dagoen ama salbatu nahian dabilen mutikoaren istorioa. Jackek topo egiten du bere amaren bila datorren Heriorekin, eta, iruzur eginaz, lortzen du potobaten barruan harrapatzea, amaren heriotza eragotziz. Ipuinak erakusten digu Bizitza eta Heriotza txanpon beraren bi aldeak direla, bata bestea gabe ez direla ezer; modu naturalean, goxoan, maitasun handiz, Tim Bowleyk egiten zuen guztia bezala.

Ilustrazioak ere azpimarratzekoak dira. Natalie Pudaloven ilustrazioak zoragarriak dira –ez da lehenengo aldia tarte honetan aipatzen dudana–. Ederrak bezain gotikoak, akaso apur bat gogorrak

IPUINEK AUKERA EMAN DIEZAGUKETE GURE TXIKIEKIN ARITZEKO ZAILAK ZAIZKIGUN GAIEI BURUZ

txikientzat; beraz, istorioa aproposa izan arren, komeni da aurrez begiratu bat ematea gure txikiei liburua erakutsi baino lehen. Liburuen eta ipuinen unibertsoan saltsa-maltsan gabiltzan askori liburu gomendioak eskatzen dizkigutenean, batez ere, bi gai izaten dira izarrak: berdintasuna eta heriotza. Ipuinek aukera eman diezagukete gure txikiekin aritzeko berez zailak zaizkigun hainbat gairen inguruan, eta heriotza izan daiteke horietako bat. Horretarako tresna paregabea da ipuin hau. Aurkitu berri dudana Britta Teckentrupen *El árbol de los recuerdos* ere asko gerturatzen da pertsonalki heriotzaz dudak ikuspegira.

Bowleyk beti hasten zituen bere saioak gonbidatuz elkarrekin ipuinetan barna bidaia egitera. Aurrerantzean bere ahotsez ez, baina utzi digun altxor bakoitzarekin bidaiatu dezakegu. Oraingoan, baina, ez lotu gerrikorik, egin hegan, libre! ■■■

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko ekaineko zozketa!

Ekainaren 30eko PUNTUA eta *Goiena* aldizkarietan, ekaineko sarien irabazleak zeintzuk diren esango dugu. Adi egon, beraz!



Irabazi bi lagunendako sarrerak

Plateruena Kafe Antzokiari esker

Mikel Urdangarinen kontzerturako sarrerak ditugu.

Plateruena, Durangon. | Ekainaren 30ean, 21:30ean

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Mikel Urdangarin" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkideku zaitetz: 2017 (ekainetik aurrera): 30 euro. Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba

San Benito Menni

GURE ALTXORRAK ESKORIATZA ETA ARRASATE



Ondoko argazkian, Gesalibarko ospitalearen hainbat irudi; eta San Benito Menni hilobiratura dagoen kapera, Madrilen.

Orri honetan, San Benito Menniren erretratu; eta txikietan, egungo Huhezi fakultatearen klaustroa eta sarrerako plaka.



Testua: Mireia Bikuña eta 'Aita-Menni.org'
Argazkiak: Mireia Bikuña eta Wikipedia

San Benito Menni (1841-1914) 1864an sartu zen San Juan de Dios ordenan eta hiru urte geroago apaiz ordenatu zuten. Italian jaio arren, apaiz ordenatu ostean, Bartzelonara bidali zuten. Han, egoera eskasean bizi ziren haurrak hartzeko etxe bat fundatu zuten. San Benito Menniren lehen etxea izan zen.

Bestalde, 1872 eta 1876 urteen artean lehertu zen III. Karlistada. Gerra hartako batailarik odoltsuenak Euskadin eta Nafarroan gertatu ziren. III. Karlistadaren eraginez etorri zen lehenengo aldiz Euskal Herrira,

San Juan de Diosko beste bost anaiarekin batera. Euren burua eskaini zuten gerrako bi bandoetako zaurituei osasun laguntza emateko. Hala, sortu berria zen Gurutze Gorrian sartu zen, ambulanzietan eta ospitaleetan laguntza ematen. Ospitaleetako bat Arrasaten zegoen, Gesalibarren. Eraikin hura bainuetxe zerbitzua emateko eraiki zen, baina, gerran, ospitale izaera zuten.

Buruko gaitza tratatzeko

Gerra bukatu ostean, bailaran geratzea erabaki zuten San Benito Mennik. Buruko gaitzak zituzten gaixoak batzeko eta tratatzeko etxe bat sortzeko konpromisoa hartu zuten. Haiekin batera, gerrako zaurituak eta gerraren ondorioz

umezurtz geratu ziren umeak ere bai. Eta Eskoriatzan egin zuten. Jatorriz Errosario Santua ospitalea egon zeneko lekuan. "Juan de Mondragonek emandako diruarekin eraiki zen Errosario Santua ospitalea. Peruko Potosin dirutza egin zuten hark eta horretara bideratu zuten", esan du Iñigo Ramirez de Okarizek.

San Benito Menniren lehen zentro psikiatrikoa izango zen, eta 1875eko azaroaren 28an inauguratu zuten. Lehen gaixoa etxekoa izan zen: Anselmo Alai eskoriatzarra.

Zoritzarrez, sei hilabeteren bueltan, 1876ko maiatzaren 30ean, ospitalea itxi zuten. Arrazoi politikoak baziren orduan, eta Eskoriatzako ospitalean zerbitzua etetea erabaki zuten.

Baina, ordurako, Aita Mennik bere aletxo landatuta zuten. Buruko gaitza zuten gaixoen alde egingo zuten biderearen lehen urratsa egina zuten.

Ostean, Viatoristak heldu ziren Eskoriatzara, eta eraikin hartan San Viator ikastetxea zabaldu zuten, 1921ean. Egun, Huheziren fakultatea da. 1999an joan ziren hara Mondragon Unibertsitateko ikasleak.

Ahizpa Ospitalariak

1881ean Ahizpa Ospitalariak kongregazioa sortu zuten bere jarraitzaile Maria Josefa Reciorekin eta Angustias Gimenezekin. Buruko gaitza zuten emakume gaixoak zaintzeko eta artatzeko helburuarekin hasi ziren lanean, eta, berriro, Debagoienara itzuli

zen. 1898an, Gesalibarko egungo eraikinak sortzeko, hango bainuetxea erosi zuten. Gobernuako presidente Canovas del Castillo hilda zegoen eta gainbehera hasita orduko gizartean.

San Juan de Dios ordenak eta Ahizpa Ospitalarien kongregazioak bat egin zuten proiektu hartan.

Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiek ere begi onez ikusi zuten ospitale psikiatrikoa.

Madrilen hilobiratu zuten

Benito Menni Italian hil zen, baina Madrilgo Ciempozuelosen hilobiratu zuten, han sortu zuelako kongregazioa. Hark egindako lana aintzat hartuta, 1984an, Juan Pablo II.a aita santuak beatifikatu egin zuten, eta, 199an kanonizatu. ■■■

BURUKO GAITZA ZUTENAK ARTATZEKO HAINBAT OSPITALE ERAIKI ZITUEN



Ander Zubizarreta
Software ingeniaria

Irudia:
FreeGreatPicture / PMK

Alfabetatze digitala

“Irakurtzen eta idazten ez dakiena, alfabetatu gabea”. Hori da, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, *analfabeto* hitzaren esanahia. Analfabeto funtzional deritzogu, aparte, irakurtzen eta idazten jakin arren, gaitasun horiek eguneroko zereginetarako erabiltzeko gai ez denari.

Duela urte asko, idazten eta irakurtzen jakin gabe bizi zitekeen bat. Hala bizi zen biztanleriaren zati handiena. Gutxi ziren letratuak. Gaur egun, ia imajinaezina zaigu alfabetatu gabeko pertsonen osatutako gizarte bat. Askok aldatu dira kontuak. Eta aldatuaz jarraituko dute.

Nire ogibidean sarri joan behar izaten dut bezeroengana soluzio informatikoak ezartzera, eta behin eta berriz entzuten ditut: “Ordenagailua eta ni ez gara ondo konpontzen”, “ni ordenagailuarekin... puf!”, “eta orain ordenagailua erabiltzen ikasi behar dut?”, eta antzekoak, aplikazioa erabili beharko duen langilearengandik. Hori dioena erretiroa hartzetik gertu badago, zera pentsatzen dut: Tira, agian, arrazoi duzu, geratzen zaizunagatik, zertarako hasi orain honekin...”, baina harritzen nauena da kontu hauekin datorren langile gazte kopurua. Eta horrelakoetan, beste era batera pentsatzen dut; askotan, ozen: “Benetan uste duzu geratzen zaizun bizitza profesional luzean



–eta gero eta luzeagoan– ordenagailu bat ukitu gabe lan egin ahal izango duzula?”. Kasu honetan, industriaren sektorean.

Digitalizazioa ez da etorkizuna, oraina da. Eraldaketa hemen dago,

DIGITALIZAZIOA EZ DA ETORKIZUNA, ORAINA DA, ERALDAKETA HEMEN DAGO

eta moldatzen ez dena analfabeto funtzional bihurtzeko arriskuan izango da. Eguneroko zereginetarako gero eta gehiago darabilzkigu ordenagailu zein sakelakoak, eta erabiliko ditugu etorriko diren tresna berriak ere.

Nire belaunaldia nerabezaroan harrapatu zuen digitalizazioaren eztandak, Interneten hedakuntzarekin batera. Natibo digital deritze belaunaldi berriei, oraingo haurrak ia-ia sakelakoa besapean dutela baitatoz mundura. Ez diogu teknologiari beldurrik izan behar. Baina teknologian alfabetatu behar dugu, ekar ditzakeen arriskuak ekidin eta etekina ateratzeko. Natibo digital izateak berak ere ez baitu ziurtatzen analfabeto funtzional ez izatea, arkatx batekin hizkiak egiten jakiteak idazten dakigunik ziurtatzen ez duen bezala.

Horregatik da garrantzitsua teknologia berriei beldurra galdu, eta ezagutzak eguneratuz mundu digitalean moldatzen ikastea. ■■■

Testua: Itziar Larrañaga

Nadi X

Yoga egiteko elastikoak.

WereableX. 270 euro (abuztutik)
Yoga zuzen egiten laguntzen dute WereableX markaren elastikoek. Aplikazio baten bidez, kirolariak ikasi eta hobetu nahi dituen posizioak zehazten ditu. Prakek sentzore batzuk dituzte era inalanbrikoan elkarlotuta. Horri esker, posizio bat gaizki egiten denean, bibrazio bidez postura egokira bideratuko da yogalaria.



Nakefit

Oinpea babesteko itsasgarriak.
Nakefit. 30 euro (10 pare)

Udako beroekin, hondartzan, adibidez, oinutzik doan oinpea erretzea ohikoa bezain minkorra da. Arazo horri irtenbidea eman nahian, *Kickstarter* webgune bidez finantziazio bila dabil Nakefit. Itsasgarriak urarekin ez askatzeko eta ez irristatzeko diseinatuta daude. Elastikoak dira, eta oinpeak zaurietatik babesten dituzte.

JellyTank

Marmokentzako arrainontzia.
170 euro (aurre-eskaria eginez)

Arrainontzia marmokak beraien habitat naturalean bezain eroso sentitzeko diseinatuta dagoela diote fabrikatzaileek. LED sistema bidez dago argizatuta eta diseinu futurista eman nahi izan diote. Uneoroko xehetasunak kontrolatzeko mugikorrerako aplikazioa dakar. Hori bai, marmokak aparte saltzen dira.



Egilea: *Garbine Ubeda (Aiurri)*

3 SUDOKU

Ipini sudoku bakoitzeko letrak dagokien tokian. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau laukiko area bakoitzeko.



ZOPA ala POZA?

A			Z
		P	
	Z		
O			

B			I
L		B	
	A		


BLAI ala BILA?



ZAPI ala AZPI?

A	P		
		A	
			I
		Z	

Udaberri engainaria



Sei zati hauetatik bakarra dago irudi handitik hartuta. Zein da?

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eu/

JAIOBERRIAK



Hegoa Sanchez Lete
Agurain. 3,510 kilo. Ekainaren 15a. Gurasoak: Ane eta Alain. Argazkian, Hegoa txikia, ohe gainean.



Ivette Azurmendi Ugarte
Gasteiz. 3,500 kilo. Ekainaren 13a. Gurasoak: Amaia eta Ander. Argazkian, Ivette, gurasoekin.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri PUNTUA eta Interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN egoitzara.

Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



guraso.eus

Gurasoen premiak asetzeko gunea

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikulak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarrizketak.





Innovation
that excites

UNITATE MUGATUAK GAURSAN SOILIK



23 NISSAN
X-TRAIL
UNITATE

GEHIENEZKO **%23** KO
DESKONTUA*

EZ GALDU AUKERA ETA ERAMAN DAUZKAGUN 23 NISSAN X-TRAIL UNITATE MUGATUETAKO BAT %23RAINOKO DESKONTUAREKIN.

GAURSA

Gamarrako Atea, 46 A-B 01013 - Vitoria-Gasteiz. Araba - Tel. 945 262 501

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO₂ isurpenak: 129 - 149 g/km.

*Eskaintza baldioduna stock-ean dauzkagun ibilgailuentzat soilik, eta indarrean egongo da 2017/06/30 arte. X-Trail-ren eskaintzaren baldintzak kontsultatu (sustapen deskontua). Eman daitekeen gehienezko deskontua ibilgailu bakoitzaren gomendaturiko FAPan Penintsulan eta Balearretan. 3D RCI Banque-ren bidez (kontratuaren baldintzen arabera) finantzatzen duten bezero partikularrentzat, enpresentzat eta autonomoentzat.